




Zinea, Mundua eta Giza Eskubideak

IPES Fundazioa proiektu bat

www.cineddhh.org



Unitate didaktikoa (euskara)

Transexualitatea

Dibertsitate sexualaren beste egitate bat



Zinea, Mundua eta Giza Eskubideak

Zinearen bitartez mundua ulertu Giza Eskubideen ikuspuntutik.

Unitate Didaktikoa 15. Transexualitatea, dibertsitate sexualaren beste egitate bat.

Egileak

Rut Iturbide, IPES Fundaziokoa.

Erika Salvatierra Urtasun, Kattalingorri Elkarteko sexologoa.

Goreti Etxepare Alberro, Kattalingorri Elkarteko sexologoa.

Amaia Barrena Arana, Kattalingorri Elkarteko sexologoa.

IPES FUNDAZIOA – 2018ko abuztua

Descalzos kalea 72, behea - 31001 Iruña, Nafarroa

948 22 59 91 – fundacion@fundacionipes.org

www.fundacionesipes.org

www.cineddhh.org

Lan hau Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin lizentziapean dago

Lizentzia horren kopia bat ikusteko, jo honetara:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/>

‘De Berta a Teo’ Irene Navascuésen film laburrean oinarri hartutako unitate didaktikoa. Lanean aipatutako testuak, argazkiak, grafikak, irudiak, izenak, logotipoak, merkataritza-markak eta zerbitzu-markak komunikabide eta webgune bakoitzaren jabetzakoak dira, kasu bakoitzean aipatzen den bezala.

Azalen diseinua: wikalaka (www.wikalaka.es)

Unitate Didaktikoa euskaraz - © 2018 IPES Fundazioa

AURKIBIDEA

I. Unitate didaktikoaren aurkezpena

II. Helburuak

III. Metodologia

IV. Oinarrizko gaitasunak

V. Eduki kontzeptualak

VI. Jarduerak

VII. Ebaluazioa

VIII. Bibliografia

IX. Eranskinak

AURKIBIDEA

I. Unitate didaktikoaren aurkezpena

I. Zergatik egin ezaugarri hauek dituen unitate didaktiko bat?

Duela denbora batetik, gizartean eztabaida garrantzitsu bat argi gara izaten nortasuna eraikitzeari lotuta, zentzu zabalean hartuta hura (Hernando, 2012). Eztabaida horretan, imajinarioak lasaiagoak izaten hasten dira, batez ere alderdi hauei dagokienez: alde batetik, sexuaren eta generoaren binarismoa zalantzan jartzeari; eta bestetik, “gizon izate” eta “emakume izate” hori eraikitzeari dagokionez.

Eztabaidak azkenaldian indar handia hartu duela ikusirik, eta, era berean, gure errealitate sozialetan dagoen dibertsitate sozialak gero eta bisibilizaio handiagoa duela ikusirik, unitate didaktiko honen bidez gure mundua interpretatzeko esparrua eratzean lagundu nahi da nolarebait, esparru hori malguagoa izan dadin, eta, horrenbestez, autodenominazioari, askatasunari eta elkarrenganako errespetuari lotutako dinamiketan arreta jarriko duena izan dadin. Eta ez hori bakarrik, ikuspegi teorikoa eta praktika ematekoa ezartzen ere lagunduko du, begirada bat, pertsonengan arreta jartzen duena eta “sentitze” eta “nor bere burua izendatze” horretan.

Unitate didaktiko honek, dibertsitate sexualaren barnean kokatuta, transexualitate-egoeran dauden pertsonengan jarri du arreta. Nahiz eta bertan ikusiko den moduan pertsona guztiak desberdin eta askotarikoak garen sexualki, oraindik ere egun trans pertsonen estigma eta bereizkeria handia pairatu behar dute gure gizartean, eta horregatik beharrezkoa da dibertsitatearen egitate honetan gelditzea.

Pertsona guztiak gara desberdinak, eta bakan eta paregabeko egiten gaituzten berezitasunak ditugu. Zenbaitetan, gizonak eta emakumeak beren artean oso desberdinak direla, eta, era berean oso berdinak, pentsatzean oker ibiltzen gara, oso homogeenak beren kategorizazioan (“emakume guztiak... dira vs gizon guztiak... dira”), bi kategoria handi balira bezala. Hartara, unitate didaktiko honek ideia faltsu hori argitzeko asmoa du, eta, era berean, alde batetik, agerian utzi eta ikusgai egin nahi du gizonok eta emakumeok ezaugarri komunak partekatzen ditugula, eta, bestetik, pertsona guztiak desberdinak garela, eta, horrenbestez, bakan izatea ekartzen duten ezaugarriak ditugula. Hau da, tresna bat da gizon izateari eta emakume izateari buruz dugun imajinarioa zabaltzeko, eta inposatzen den maskulinitasun eta feminitateko eredu murriz, zurrun eta mugatzailearen aurrean dagoen dibertsitatea ikusgai egiteko (Barqui, Genise eta Tolosa, 2018)

II. Unitate didaktiko hau kokatzen den esparru normatiboa eta heziketa-mailak

Unitate didaktiko hau DBHko bigarren zikloko (4. maila), Batxilergoko eta Lanbide Heziketako graduatuko ikasleekin erabiltzeko diseinatu da.

Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumak

ezartzen duen apirilaren 22ko 24/2015 Foru Dekretuan, 4. artikuluan, jasotzen dira etaparen helburuak eta zehazki a) atal edo idatz-zatian adierazten da irakaskuntzak etapa horretan lagundu behar duela eskubideak eta betebeharrak onartzeko, giza eskubideak sendotzeko eta, besteak beste, errespetu eta tolerantziaren balioak praktikan emateko aldekoak diren jarrerak garatzean:

4. a) Beren betebeharrak arduraz bereganatzea, besteekiko errespetua gordez beren eskubideak ezagutu eta gauzatzea; pertsonen eta taldeen artean tolerantzia, lankidetzeta eta elkartasuna praktikatzeko; elkarriketa gauzatzea giza eskubideak eta emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasuna sendotuz, horiek guztiak gizarte plural batean amankomunak diren balioak direlako; eta herritartasun demokratikoa gauzatzeko prestatzea.

Halaber, 4. artikulua horretan, jasotzen da sexuen arteko diferentziarekiko errespetua eta balioa (c); indarkeriarako arbuioa, haren zentzurik zabalenean ulertua eta barnean hartuko lukeena LGBTIfobia (d); eta bakoitzaren gorputzerako eta sexualitate desberdin eta askotarikorako errespetua (l):

4. c) Sexuen arteko aldeak eta sexuen arteko eskubideen eta aukeren berdintasuna balioetsi eta errespetatzea. Pertsonen bazterkeria arbuizatzea, sexuagatik edo bestelako edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik. Gizonen eta emakumeen arteko bazterkeria dakarten estereotipoak arbuizatzea, baita emakumearen kontrako indarkeria agerpen oro ere.

4. d) Gaitasun afektiboak indartzea nortasunaren eta besteekiko harremanen esparru guztietan, indarkeria, edozein motatako aurreiritziak eta portaera sexistak arbuizatzea eta, orobat, gatazkak modu baketsuan ebaztea.

4. l) Norberaren gorputzaren eta gainerakoen funtzionamendua ezagutu eta onartzea, aldeak errespetatzea, gorputza zaindu eta osasuntsu izateko azturak sendotzea, eta gorputz hezkuntza eta kirola egitea, garapen pertsonala eta soziala errazteko. Sexualitatearen aniztasuna eta giza dimentsioa ezagutu eta baloratzea. Osasunarekin, kontsumoarekin eta izaki bizidunak eta ingurumena zaintzearekin zerikusia duten aztura sozialak kritikoki baloratzea eta haiek mantendu eta hobetzen laguntzea.

Gainera, 7. artikuluan, zeharkako elementuak aipatzen direnean, bosgarren puntuan, hitzez hitz hau biltzen da:

7.5. Era berean, ikastetxeek ekintzak burutuko dituzte ezein izaera edo egoera pertsonal edo sozial dela-eta diskriminazio-ezak eta tratua berdintasunak berezko dituzten balioak sustatzeko helburuarekin eta horretarako, beste neurri batzuen artean, edozein diskriminazio mota suposatzen duten portaera eta eduki sexistak eta estereotipoak ekidinen dituzte.

Azkenik, eta nahiz eta Lanbide Heziketako graduatiko irakaskuntzetan ez dagoen berariaz jasota helburu orokorretan, unitate didaktiko honetan lantzen diren helburuek, jarrerak, edukiek eta prozedurek gaitasun soziala eta zibikoa, hizkuntza-gaitasuna, ikasten ikastea garatzea laguntzen dute eta, hortaz, irakaskuntzaren maila horretan ezin hobeto sartu eta egokitzen dela baloratzen dugu.

III. Unitate didaktiko honen hartzaileak eta egitura

Unitate didaktiko honen hartzaileak irakasleak dira. Helburua da gure gizarteetan dagoen dibertsitate sexuala ulertzeko eta, nortasuna eraikitze prozesuari dagokionez, imajinario soziala zabaltzeko prozesuan lagun egiteko jarduerak egin ahal izatea irakasle horiek. Horretarako, eduki teorikoak eta ikasleekin erabil daitezkeen material eta jarduera zehatzak ematen zaizkie. Material eta dinamika horiek egokitu egin daitezke, bai hartzaile zehatzak aintzat hartuta, bai eta haien kopurua eta berariazko beharrak ere kontuan hartuta.

Unitate didaktikoa zortzi ataletan egituratzen da: lehenbizikoan, unitatearen premia justifikatzen da; gero, helburuak eta oinarritzko gaitasunak biltzen dira, baita kontzeptuzko edukiak eta garatzekoak diren jarduerak ere. Geroago ebaluazio-mekanismoak ezartzen dira, erabilitako eta gomendatutako bibliografia ere ageri da, eta, azkenik, zenbait eranskin daude, proposatutako jarduerak egiteko moduko material espezifikoak biltzen dituztenak.

II. Helburuak

I. Helburu orokorra

Gure gizarteetan dagoen dibertsitate sexuala ikuspegi zabal eta positibo batetik aztertu eta ikusgai egitea; hartara, gure imajinarioa zabaltzeko eta sexu-identitateari lotuta dauden ideiak malgutzeko, *“eredu”* gisa ezarrita dagoen binarismo soziala zalantzan jarrita.

II. Berariazko helburuak

- Sexuazio-prozesua eta haren dibertsitatea ezagutzea.
- Eredu sozial binarioa (emakumeak eta gizonak) eta hari lotuta dauden estereotipoak (genitalak, jantziak eta abar) lantzea, desmuntatu ahal izateko.
- Transexualitatera hurbiltzea, dagoen dibertsitate sexualaren beste egitate bat den heinean, eta izan ditzakeen igarotze ugariak eta babes-baliabideak (familia, lagunak eta abar) ezagutzea.
- Eraikitze sozialak sexuen gainean, oro har, eta pertsona transexualen gainean, bereziki, dituen ondorioei buruzko gogoeta kritikoa egitea.
- “Normalizazioaren” atzean NORMAtizazioa (eredu sozialak) eta dagoen dibertsitate sexuala eta soziala ikusgai egiten duten pertsonen aurkako indarkeria naturalizatzea dagoela ohartzea.
- Trebetasun sozialak lantzea eta “jardunbide egokiak” garatzea (entzuteko ahalmena, epaitua sentitu gabe iritziak adieraztea, bai/ez esatea, argudiatzea, eskatzea, lehentasunak adieraztea, proposamen positiboak egitea...), horretarako, aukerak eta egoerak emanda.
- Jarrera positiboak garatzea eta taldean lan egiteko trebetasunak.

III. Metodologia

Unitate didaktiko honetako metodologia nagusiki parte hartzekoa da, eta bakarkako eta taldekako dinamikak konbinatzearen bidez ezagutza eraikitzean oinarrituta dago, batez ere azken horien bidez.

Hori guztia aintzat hartuta, zenbait irizpide metodologiko gako ezartzen dira. Alde batetik, saio bakoitzaren hasieran, garrantzitsutzat jotzen da talde osoak minimoen akordio bat izenpetzea, funtsezkotzat hartzen diren bizikidetza-balioetan eta -arauetan oinarrituta: bai orokorrak – errespetua izatea, entzutea, ez epaitzea–; bai genero-ikuspegia barnean hartzen dutenak ere – ikaskide neskei hitz egiten uztea, talde txikiak osatzea nesken arrazoibideak entzuteko aukera egon dadin, neskek ere bozeramaile moduan parte hartzea sustatzea, edukiekin eta gertaerekin ez ezik, emozioei tartea eta garrantzia ere emanez lan egitea...–. Beste alde batetik, ikasleek jada badakitenetik abiatuta eta hari balioa emanda garatuko dira saioak, ezagutza beren aurretiazko ideien, gogoeten eta abarren gainean eraikitzen. Ez dakiten hura elkarrekin formulatuko dute berriro, eta irakasleek prozesu hori babestuko dute. Hartara, ez dira eskola magistralak izango, baizik eta prentsamendu-eredu eta garapen kontzeptual inductiboa ezarriko da, ikasleek –eta hori ezin dugu ahaztu– asko baitakite. Beren ezagutzei balioa emateak berebiziko garrantzia du, beren iritziak eta jakinduria garrantzitsuak direla ohar daitezen eta gizarte eta aurreiritziak aldatzea beren esku ere badagoela ikus dezaten eta horren ardura har dezaten. Saioak parte hartzekoak izango dira eta esperientziaren bidez ikastean oinarritutakoak, sentitzen edo esperimendatzen dena gure memorian luzaroagoan finkatuta gelditzen baita. Eta azkenik, animatu nahi ditugu irakasleak saioak hasi aurretik (lehenbizikoan izan ezik) ikasleei galdetzeraz zer duten gogoan aurreko saioan jorratutakoaz. Eta, zalantza bat gelditu bada, egiten ari diren bidea denek ulertzen dutela ikustea garrantzitsua denez, argitu ahal izatea. Gainera, hala jarduteak *feedback* moduan balio du, jakiteko, batetik, ideia nagusiak helarazten eta ulertzen ari diren, eta, bestetik, proiektuan aurreikusitako helburuak lortzen ari diren.

IV. Oinarrizko gaitasunak

- I. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
- II. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- III. Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- IV. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- V. Ikasten ikasteko gaitasuna.

V. Eduki kontzeptualak

I. Aurretiazko abiaburuak, bidaia hau hasi aurretik

Lehenago aipatu dugun moduan, unitate didaktiko honetan pertsonen dibertsitate sexualerako bidaia bat egingo dugu, bereziki nabarmenduta dagoen dibertsitatearen zati bat, *transsexualitatea* esaten zaiona. Sozialki, transsexualitateaz hitz egiten dugunean, imaginario bat eraikitzen da, galdera ugari agertzen da eta hitz gakoak sortzen dira, hala nola sexu-identitatea. Zeinak, hain zuzen, erreferentzia egiten dion pertsona bakoitzak bere buruari, bere gorputzari, dituen ezaugarri fisikoei eta erakarpen erotikoko ereduari buruz duen pertzepzio subjektibo eta pribatuari.

Hori gorabehera, uste dugunez termino giltzarria izateaz gain konplexua ere badela, unitate didaktiko honetan biak ala biak egiten joango gara, hobeki ulertu ahal izateko. Horretarako, proposatzen dugu *transexualitatearen* kontzepturantz bidea egitea, zenbait geldialdi eginez, gainera, kontzeptuak eta errealitateak ezagutzeko eta/edo berriro kokatzeko balioko digutenak. Hiru hauek, zehazki. Lehenik eta behin, hasieran sex- duten hitzak landuko ditugu, adibidez, “sexuala” eta “sexualitatea”, eta haien artean sartuko dugu “erotika”, nahiz eta ez izan sex- hasieran, aurreko biek in estu lotuta baitago. Bigarrenik, sexuazio-prozesua. Eta hari lotuta, hauek landuko ditugu: zeri egiten diogu erreferentzia sexuazio-prozesuaz hitz egiten dugunean?, intersexualitatea, sexu-identitatea eta bai ustezko “normaltasun” normatiboa vs errealitate desberdin eta askotarikoa. Eta hirugarrenik, gure azken geldialdia transexualitatea izango da, dagoen dibertsitate sexualeko beste egitate bat dela ulertuta.

Eduki teoriko horiek guztiak, lau gai giltzarritan multzokatuta, hamar saioaren bidez landuko dira (jardueren atalean jasota daude):

Kontzeptu sexologikoak:

1. Sexua: haietako zein, edukitzen dena, egiten dena edo norbera dena?
2. SexuaK, sexualitateaK eta erotikaK, bat ala zenbait?
3. Zer da sexuazio-prozesuaren kontu hori? Nire adreiluzko horma.

Sexu-identitatea:

4. Nire sexu-identitateak identifikatzen nau?
5. Nor dago ispiluan?

Transexualitatea:

6. “Ibiltzeko bideak...”.
7. “Igarotzeak”.
8. “Maskulinoak femeninoaren aurrean duen boterea”.
9. Igarotzeetan lagun egiten.

Dibertsitate sexuala:

10. Dibertsitate sexuala: “Pertsona desberdin eta askotarikoak, imajinario zabalagoak”.

II. Geldialdiak intereseko toki eta espazioetan

Aurretik adierazi dugun moduan, nahitaez egin beharreko hiru geldialdi ditu bidaia honek:

1. Hasieran sex- duten hitzak

Geldialdi horietako lehena hasieran sex- duten hitzena da. Eta horren barnean, unitate didaktiko honetarako interes berezikotzat jotzen ditugun hiru kontzeptu landuko ditugu, nagusiki. Sexualitatearen errealitatea eta bere alderdi ugariak ulertzeko balioko digu. Hiru kontzeptu horiek hauek dira: sexuala, sexualitatea eta erotika (Amezúa, 1999).

a. Sexua

SEXU hitzak, eskuarki, irakurketa bikoitza izaten du. Alde batetik, *edukitzen den sexua*, hau da, genitalei egiten die erreferentzia, bulbari edo zakilari. Eta bestetik, genital horiekin egin daitekeen hura, *egiten den sexua*. Baina, gainera, bada hirugarren aukera bat, unitate didaktiko honetan jorratuko duguna eta hartan arreta jarriko duguna: *bakoitza den sexua*. Halakotzat ulertu behar dugu pertsona bakoitzak dela sentitzen duen hura. Alde horretatik, SEXUEZ hitz egingo dugu, gizon eta emakumeez. Ezaugarri komunak dituzte, baina baita beren

artean eta bakoitzaren barnean desberdinak direnak.

Hori guztia aintzat hartuta, laburbildu ahal izango genuke sexua norbanako ororen existentzian eragina duen alderdia dela, izaki sexuatu edo sexudun gisa eratuz. Egitate horrekin eginez pertsona bakoitza izatea, bizitzea, adieraztea eta desiratzea den subjektu sexudun gisa: emakumea edo gizona. Emakume eta gizon ulertuta izatearen bi ideia jarraitu moduan, ez bi estamentu estanko, desberdinak eta askotarikoak denen artean.

b. Sexualitatea

Sexua oso lotuta dago lehen geldialdi nahitaezko honetan giltzarria den hurrengo hitzarekin: *sexualitatea*, hura bizipen-alderdi moduan ulertuta. Hau da, pertsonak modu desberdin, bakan eta paregabeko batean sentitzen du emakume izate eta gizon izate hori, eta modu guztiak dira desberdinak, zilegiak eta bidezkoak. Ez dugu ahaztu behar sozialki zenbait eredu hegemoniko daudela, eta haiek, nahiz eta ez duten zehazten edo mugatzen, bai baldintzatzen dutela gure “emakume izateko eta gizon izateko” era. Hori dela-eta, sexuekin gertatzen zen moduan, sexualitateaz hitz egiten dugunean, pluralean egingo dugu, *sexualitateez* hitz egingo dugu, hartara, pertsona guztienak hartzeko barnean. Hartara, esango genuke sexualitatea dagokiola sexuari nortasuna pertsonari dagokion moduan. Bestela esanda, nortasunak erreferentzia egiten badio pertsona izateko modu jakin bati, sexualitatea litzateke sexuatu izateko modu bakan eta paregabeko hori. Pertsona guztiak desberdinak bagara gure artean, ulertzen dugu emakume guztiak halakoak garela eta bai gizon guztiak ere. Sexualitateak erreferentzia egiten die pertsona guztiengan maila desberdinetan elkarrekin bizi eta nahasten diren moduei, hau da, maskulinoei eta femeninoei, eta denok desberdin eta diferente izatea ekartzen dutenei. Gregorio Marañón (1951) *“La evolución de la sexualidad y los estados intersexuales”* liburuan esaten zuen moduan:

“Ez gara gizon edo emakume, ez ehuneko ehunean, ez eta bata eta bestea. Gizona eta emakumea elkarrekin bizi dira norberarengan, eta desberdintasuna maila-kontua da. Maskulinoa eta femeninoa ez dira aurkako bi balio, baizik eta funtzio bakar baten, sexualitatearen, garapenaren ondoz ondoko graduak”.

c. Erotika

Bidaiaren lehen zati honen barneko azken geldialdia *erotika* da. Halakotzat hartu behar da alderdi konduktuala desiratik. Erotikak erreferentzia egiten dio pertsona bakoitzak bere sexuari eta sexualitateari ematen dion adierazpideari; izaki sexudun moduan adierazteko era bat da, sen edo instintu edo joera bat baino gehiago. Bakoitza testuinguru jakin baten barnean joaten da erotizatzen, moldatzen eta taxutzen, bere istorioa eratzen duten bizipen askotarikoen bidez. Hortik, adierazpide erotikoak askotarikoak eta ugarikoak izatea. Bestela esanda, erotikak izaki sexuatu gisa –emakume eta gizon– ditugun desirai eta irrikeri egiten die erreferentzia, eta bai beste pertsonarenganako gustuari, harekin topaketa edo elkartzeko bat irrikatzea ekartzen duenari.

2. Sexuazio-prozesua: “Zer da sexuazio-prozesua?” kontzeptua, intersexualitatea, sexu-identitatea eta ustezko “normaltasun” normatiboa vs errealitate desberdin eta askotarikoa

Atal honetan, nagusiki, lau gauza landuko ditugu. Lehenengoan, nola gertatzen den sexuazio-

prozesua gizakiongan, zein elementuk esku hartzen duten, hartara, ulertzeko haren dibertsitatea araua dela. Bigarrena, intersexualitatea, berriro argi eta garbi esaten duena poliformia, aniztasuna, giza egitate etengabea dela. Hirugarrenik, sexu-identitatea bere konplexutasunean ulertuta, hartara, irakurketa sinplistik eta erredukzionistak saihestuta. Eta azkenik, zalantzan jartzea “normaltasun” normatibo esango dioguna, nahitaez ordeztu behar dena, gizarte integratzaileagoak nahi baditugu, errealtate desberdinekin.

a. Sexuazio-prozesuaren kontzeptua: zeri egiten diogu erreferentzia sexuazio-prozesuaz hitz egiten dugunean?

Dibertsitate sexualeranzko bidaia honetan jarraitzeko, beste geldialdi bat egingo dugu ulertzeko nola eta zergatik diren sexuak desberdinak beren artean. Horretarako, *sexuazio-prozesuaz* hitz egingo dugu, halakotzat jota desberdintze sexuala. Hau da, gainerakoengandik bereizten gaituen prozesua, ekintza eta bizipen desberdinen multzo baten bidez. Haien bidez, eta gure bizitzan zehar, gizon eta emakume gisa eraikitzen dugu gure burua. Alde horretatik, ezin dugu ahaztu PERTSONAK adina modu daudela GIZON ETA EMAKUME izateko. Prozesu hori testuinguru sozial, pertsonal, bakan, paregabeko eta erlazional baten barnean gertatzen da. Eta gametoeak bat egiten dutenetik hiltzen garen arte gauzatzen da. Hartara, dinamikoa da, etengabe eraikitzen doa eta desberdina da bizi-ziklo osoan zehar.

Prozesu hori pertsona guztiengan nola egikaritzen den ikusi aurretik, sexuazio-prozesu hori hobeki ulertzea erraztuko duten bi kontzeptu definituko ditugu: agente ginikoak eta agente andrikoak. Agente ginikotzat hartzen ditugu (ginizatsetik) femeninoarekin zerikusia dutenak, eta agente andrikotzat (andrizatsetik) maskulinoari erreferentzia egiten diotenak. Alde horretatik, ikusiko dugu nola norbanako bakoitza sexuatzeko den *norabide batean eta bestean*, eta horrek esan nahi du izaki bat ez dela bakarrik andrizatzen edo ginizatzen, baizik eta *BI NORABIDEETAN* sexuatzeko dela.

Sexuazio-prozesuaren barnean dinamika binomikoak urratzen dituen esperientzia honetatik abiatu garen honetan, gainera, ulertu behar dugu gorputz osoa sexuatzeko dela. Egoera hori, hain zuzen, *agente sexuante* esango diegun haien emaitza izango da. Agente horiek elkarrekin –batzuk ez dira ulertzen besteak gabe– eta aldi berean –eragin-trukean edo interrelazioan– joango dira eragiten gure gorputza ginizatzea eta andrizatzea maila desberdinetan. Agente sexuante horiek hiru dira: *agente genetikoak*, *agente hormonalak* eta *agente kulturalak*.

- Alde batetik, *agente genetikoak* ditugu. Munduratzeko prozesuan bertan “emanda datozenak” dira horiek, eta jaiotzen garenean ditugun elementu batzuk gailentzea egiten dutenak. Esate baterako, eredu kromosomikoa edo jaiotzen garenean ditugun genitalak dira.
- Beste alde batetik, *agente hormonalak* daude. “Hormona sexualak” esaten diegunak dira, hau da, estrogenoak eta androgenoak. Beste modu batera esanda, agente ginizante eta andrizanteetako batzuk, lehenago aipatutakoak. Haien garrantzitsuak dira, batik bat, gure biografiako bi bizi-etapatan: lehen, jaio aurreko etapan, haurdunaldiaren 5. edo 6. astean; eta bigarrena, jaio ondorengo etapan, nerabezaro ezagunean. Bi etapa horietan, aipatutako hormona horiek zenbait mekanismo egituratu eta aktibatzen dituzte, gure gorputza alde batera edo bestera *GEHIAGO* sexuatzeko ekarriko dutenak. Gantzaren banaketa, ahotsaren tinbrea edo gorputzean dugun bilo-kantitatea aipa daitezkeen adibideetako batzuk dira. Beste bat garun-sexuazioa edo zerebrala izango da, hau da, gure garuna ginizatzea edo andrizatzea hartu ahal izan duen estrogeno- eta androgeno-kantitatearen arabera, hartara,

sentitutako sexu-identitatearen emaitza emanez.

- Azkenik, *agente kulturalak* edukiko genituzke, hau da, gure ingurunetik eragina duten eta sozializatzen gaituzten agente guztiak. Haiek toki eta une historiko jakinetan kokatzen dira. Hartara, ez da gauza bera izango emakume izatea Iruñean edo Etiopian, eta ez da gauza bera izango XXI. mende betean izatea edo Erdi Aroan. Adibide bat jartzearen, duela ehunka urte zapata takoidunak erabiltzen zituzten pertsonak gizonak ziren, zapata horiek estatusaren erakusgarri baitziren; egun, ordea, emakumeak dira gehienbat erabiltzen dituztenak. Horrek, hartara, maskulinitasuna eta feminitatea eraikitzen dituzten ezaugarri sozialen trukagarritasunaren arrasto bat eman diezaguke.

Hori guztia aintzat hartuta, esan daiteke pertsona bakoitzak gizon edo emakume izaten joateko bere modua duela, gizon edo emakume izateko; bere prozesu berezia du izaki sexuatu gisa. Horrek pertsona guztiak norbanako desberdin bihurtzen gaitu, hain zuzen, sexuatu izateagatik, desberdintze sexuatuaren prozesu honen oinarria dibertsitatea izateagatik. Beraz, ezin da sexuazio zuzenez edo okerrez hitz egin, aukera guztiak era berean baitira baliodunak. Sexuari dagokionez, DIBERTSITATEA ARAUA DA, EZ SALBUESPENA: sexologoek “intersexualitatearen araua” esaten diotena da (Amezúa, 2006). Kontzeptu hori jarraian landuko dugu.

b. Intersexualitatea

Intersexualitateak, fenomeno eta kontzeptu moduan, bi adiera ditu:

Alde batetik, ezaugarri biologiko femenino eta maskulino batzuekin jaiotzen diren pertsonen egiten zaien erreferentzia, bai kromosomikoak (ez XY (maskulinoa) ez XX (femeninoa) konbinazioa, baizik eta XXY adibidez), bai genitalak (organo genital anbiguoak edo bitarikoak dituzten pertsonak, hau da, andrikoak eta ginikoak, egitura obarikoak edo barrabiletakoa den ez dakigun bat izanda), eta horrek eragotzi ahal die medikuei sexu bereizgarri bat izendatzea: emakumea edo gizona.

Eta beste aldetik, unitate didaktiko honetan langai izango dugun *intersexualitatearen* adiera. Hain zuzen, erreferentzia egiten dio sexuazio-prozesua izenekoaren emaitza moduan eta azaltzen du ez dagoela dimorfik (zuria vs beltza), izan ere, bere egitura aintzat hartuta, eragiten dena POLIMORFIA da (grisen eskala), hau da, *intersexualitatea*. Intersexualitate horrek, horrenbestez, aintzat hartzen du pertsona guztiok, emakumeok eta gizonok, bi sexuetako ezaugarriak ditugula, neurri desberdinetan. Hau da, pertsona guztiak gara andrikoak eta ginikoak, baina maila desberdinetan, eta, hortaz, denok gara pertsona bakanak, eta, egiatan, paregabekoak. Laburbilduz, *INTERSEXUALITATEA ARAUA DA*, hori pertsona guztiengan gauzatzen den egitatea baita.

Horren guztiaren adibidea emateko irudi bat hartzen dugu, “**Adreiluzko horma**” esaten dioguna. Irudi horretan, norbanako bakoitza horma bat da, adreilu zuri askok eratutakoa. Gero, bere sexistentzian (gametoek bat egiten dutenetik eta hil arte), eta agente andrizanteen (sozialki “margo edo kolore urdinari” esleitutakoa) eta agenten ginizanteean eraginez (“margo edo kolore arrosari” esleitutakoa), horma horretako adreilu bakoitza tindatzen doa, ez bakarrik modu desberdinean, baizik eta tonaltate desberdinetan arrosaren eta urdinaren artean. Horma horri urrunetik begiratzen badiotzu, agian, kolore bakarra hautemango duzu (ginikoagoa edo andrikoagoa), urrunetik “gizon” edo “emakume” moduan sexatuta. Baina ezin dugu ahaztu kolore bakar hori adreilu desberdinen koloreen multzoak eratuta dagoela eta, gertutik eta

zehaztasunez behatuta, ikus daitekeela izaki bakoitzak beren artean oso desberdinak diren hainbat adreilu duela. Adreiluen eta hormaren metafora honek prozesu konplexuak oso modu soil eta sinplean azaltzeko balio digu.

c. *Sexu-identitatea*

Sexu-identitatearen kontzeptua garatu aurretik, garrantzitsua da hiru kontzeptu hauek lantzea, oso desberdinak badira ere, askotan nahastu egiten baitira: sexu-identitatea, desira erotikoren orientazioa eta sexu-rolak, beste teoria batzuk kontuan hartuta genero-rolak ere esaten zaienak.

- Sexu-identitateak nik neure burua identifikatzen dudanari egiten dio erreferentzia. “NOR NAIZ NI?” galderari erantzuten dio.
- Desira erotikoren orientazioak, ordea, gure erakarpina nori zuzentzen zaion, horri egiten dio erreferentzia, gizonak, emakumeak edo biak ala biak. Asmoa da “NOR GUSTATZEN ZAIT?” galderari erantzuna ematea.
- Azkenik, sexu-rolek edo genero-rolek sozialki sexu bakoitzari (emakumeak eta gizonak) egotzen zaizkion aukerak islatzen dituzte, batzuek eta besteek izan, pentsatu, egin (jokaerak), jokatu (gustuak edo nork bere burua kudeatzeko moduak) edo sentitu behar dutenari dagokionez. Genero-rol horiek “NOLAKOA IZAN BEHAR DUT? (gainerakoek ni nolakoa izatea espero dute) edo NOLA JOKATU BEHAR DUT?” galderari erantzuten diote.

Atal honetako kontzeptu nagusian arreta jarrita, *sexu-identitatea* kontzeptu abstraktua da, *gu garen guztiaren* konplexutasuna biltzen saiatzen dena. Sexu-identitate hori berezkoa du gizakiak, eta bizitzaren prozesuan zehar eraikitzen da, non norbanako bakoitza nabarmentzen saiatzen den, barne-elkarriketa bat eraikitzen saiatzen den, bere barnerako koherentzia izateko aukera emango diona, baina baita kanpo-elkarriketa ere, munduarekiko konexioari eusteko aukera emango diona. Barnetik kanporantz gauzatzen den egitatea da, baina funtsezkoa da kanpotik “guk” hori eratzen duten beste pertsona horiek identifikatzea, “irakurria izatea”. “Guk” hori gizataldea da, komunitatea, gizartea. Hori guztia, norbera barnetik sentitzen denarekin osotasuna mantentzen saiatuta.

Sexu-identitatea eraikitze prozesua, nagusiki, lau egintza hauen gainean ezartzen da:

- *Jaio aurreko sexu-desberdintze neurologikoa edo “egosexuazioa”*: sexuazio-prozesuaren atalean lehenago azaldu den moduan, agente ginizanteen edo andrizanteen emaitza da egosexuazioa, haurdunaldian identitateari dagokion alderdi zerebrala sexuatzan dutenak. Identitate hori, gero, eta ingurunearekin bat eginda, izateko eta adierazteko modu partikularretan taxutzen joango da. Lehen egintza hau beti gertatzen da, eta subjektuak ez du horren gaineko kontzientziarik.
- *“Autosexazioa”*: autosexaziotzat jotzen dugu subjektuak adin goiztiarrean egiten duen bere kategoriazioa, hizkuntzaren jabetzearen inguruan. Eta erreferentzia egiten dio ni naizenaren gaineko kontzientzia hartzeari eta hori ezagutzeari. Autopertzepzio hau pertsonaren barnetik dator, kanpotik entzun edo jasotzen duena gorabehera. Hori ulertzeko, ezinbestekoa da hirugarren eta laugarren egintza azaltzea.
- *Eragile alosexanteen eragina*: eragile alosexanteak eragileen multzo bat dira, desberdintze sexualaren emaitza (genitalak, ahotsaren tinbrea, bularrak, biloa...) eta/edo eraikitze sozialarenak (janzkera eta orrazkera, enplegua...), gizon edo emakume gisa kategorizatze balio dutenak. Eragile alosexante horiek erraztu edo

zaildu egingo dute norbanako bakoitza bera den emakumeari edo gizonari buruz egiten joango den irakurketa.

- *Alosexazioak*: aurrez aurre duzun pertsonari izendatzen edo egozten diozun sexua da alosexazioa, hau da, nola irakurtzen duzun (gizon gisa edo emakume gisa). Alosexazioak propioak edo kanpokoak izan daitezke. Subjektuak ikusten duenaz hitz egiten dugunean (ez du nahitaez bat etorri behar barnetik sentitzen denarekin) *alosexazio propioez* hitz egingo dugu, edo, bestela esanda, kanpotik datozen pertzepzio propioez. Beste subjektu batzuek ikusten dutenaz hitz egiten dugunean, ordea (ez du zertan bat etorri behar ikusten ari den subjektuak barnetik sentitzen duenarekin), *kanpoko alosexazioen* kontzeptua erabiliko dugu, hau da, subjektuarenak ez diren pertzepzioak, kanpotik datozenak.

Deskribatu berri ditugun termino horiek guztiak hobeki ulertze aldera, adibidea emateko kasu bat erabiliko dugu:

Ibonek 14 urte ditu, emakume sentitzen da eta duela 2 aste adierazi du hori etxean. Ispiluan begiratu eta beregan hauek ikusten ditu: bizar eta bibotetxo pitin bat, adats luzea, zintzur-korapiloa, pektoralak, soin laua eta zakila. Bere buruari galdetzen dio: “egiatan emakumea al naiz?”. Emakume sentitzen naiz, baina ispiluan, saiatu arren, gizon bat ikusten dut. Oroitzen denetik, ordea, emakume sentitzen da. Ibon paseatzera atera da eta galduta dauden bi turistarekin egin du topo. Turistek ikusten dituzte bizar eta bibotetxo pitin bat, zintzur-korapiloa, pektoralak, soin laua, eta, beraz, auresuposatzen dute aurrez aurre duten pertsona gizona dela, eta, hartara, “barkatu, mutil!” esaten diote. Nekatuta, Ibonek “barka ezazue, neska naiz” erantzungo die. Bi turistak barrez hasiko dira eta beren artean esaten “neska? Zintzur-korapiloa eta bibotean ilea du-eta. Gutxienez haurra zeneko ahots fina edukiko balu, mari-mutil esan ahal izango genioke! edo txilibitu ahotsa duen heavya izango litzateke! Baina, neska! Zu ez zara neska!”.

Adierazle horiek guztiak aurrez esaten duten elementuak dira, ahalbidetzen digutenak guk geure burua kategorizatzea eta bai aurrean dugun pertsona kategorizatzea ere. Ibonen kasuan, inkoherentzia bat dago berak sentitzen duenaren (*autosexazioa*), ispiluan ikusten duenaren (*alosexazio propioa*) eta harremanak dituen gainerako pertsonen ikusten dutenaren (*kanpoko alosexazioak*) artean. Eta, hortaz, bere sexu-identitatea eraikitzean Ibonek borrokatu behar du bat barnetik sentitzen den moduan kanpotik ez ikusteak (ez berak ez eta gainerakoek ere) dakarrenarekin. Alde horretatik, bai inguruan ditugun eragile alosexanteen malgutasuna edo zurruntasuna, bai eta begiratzen eta kategorizatzen duten begien malgutasuna edo zurruntasuna (batek bere buruari eta gainerakoei begiratzea) giltzarriak dira sexu-identitate oso eta integratzailea eraikitzean. Hori dela-eta, garrantzitsua da nabarmentzea eragileek aurrez esaten dutela, auresuposatzen dutela eta, kasuen portzentaje handi batean, asmatzen dutela, baina ez beti. Arrazoi horrengatik ez lukete zehaztu behar nor den pertsona hori, hori egin behar duena norbera baita. Gizarteko gainerako kideek, besterik gabe, begiratu beharko liokete den gizona edo emakumea bezala.

Beraz, egintza horien interakzio konplexu eta desberdina –egosexuazioa, autosexazioa, alosexazioak eta eragile alosexanteak– pertsonen sexu-identitatea eraikitzen doa.

d. “Normaltasun” normatiboa vs errealitate desberdin eta askotarikoa

Gure gizarteetan, *eredu hegemoniko* esaten diegunak daude, sozialak eta bai sexualak ere. Eredu hegemoniko horiek, prozesu desberdinen bidez, modulatu egiten dute pertsonen

pentsatzeko, sentitzeko eta jokatzeko modua (jokaera, sinesmenak, ekintzak eta abar). Ohikoenak diren jokaerak eta jardunbideak “normal” gisa (araua betetzen dute, Gaussen kanpaiaren erdian daude) hierarkizatzen dira, positibo, natural eta moralki goragoko gisa. Eta haien parean daude hain ohikoak ez diren jokaerak eta jardunbideak, sozialki “ez-normal” gisa hierarkizatzen direnak (Gausen kanpaiaren muturretan daude), negatibo, ez-natural (baita patologiko ere) eta moralki beheragoko gisa.

Horien adibideak izango lirateke hauek, hauei dagokienez. a) *Sexu-identitateari* dagokionez, “normaltzat” jo izan direla zakila duten gizonak eta bulba duten emakumeak. Eta hori egia da termino estatistikoetan, baina ez moraletan. Badakigu ez dela oso ohikoa zakila duen neskato bat jaiotzea, baina gutxiagotan gertatzeak ez du patologiko bihurtzen, besterik gabe, “ez hain ohiko” egiten du. Berez dibertsitate sexualaren beste egintza bat da, eta, horrenbestez, ongi tratatua eta aintzat hartua izatea merezi du. b) *Desiraren orientazioari* dagokionez, esan behar da, sexu-identitatearen adibidean bezala, gutxiago direla erotikoki desiratzen dituztenak sexu bereko pertsonak (homosexualitatea), beste sexukoak desiratzen dituztenak baino (heterosexualitatea). Baina pertsona horiek existitzen dira eta ez dira anormalak horregatik, ez dute inolako patologiarik eta ez dira gutxiago moralki. Besterik gabe, dibertsitate sexualaren beste egintza bat da. Eta c) *genero-rolei* dagokienez, gerentzia-boterearen indizea esaten zaionean emakumeen presentzia txikiagoaz hitz egiten diguten estatistikak aurki ditzakegu, hau da, adibidez, Ibex 35 indizean kotizatzen duten enpresen buruak diren emakumeak. Horrek ez du esan nahi, ordea, positiboa ez denik emakumeen presentzia enpresaburuen erabakiak hartzeko organoetan, ez eta emakumeak gai ez direnik erabakiak hartzeko, edo moralki gauza ez direnik lan horiek egiteko. Horregatik proposatzen da, arautik urrun edo hurbil dauden kontuan hartuta fenomenoak epaitzen dituen “normaltasun normatiboko” eredu hegemonikotik mundua ulertu beharrean, “errealitate desberdin eta askotarikoaz” hitz egitea. Bertan, ikus dezakegu zein fenomeno gauzatzen diren maiztasun handiagoarekin edo txikiagoarekin, baina beti ulertuta desberdinak garela eta pertsona bera, neurtzen dugun faktorearen arabera, arautik hurbil egongo dela edo ez. Izan ere, denok gara “normalak eta ez-normalak”, aztertzen den fenomenoaren arabera.

Hori gorabehera, interesgarria da ulertzea nola eraikitzen diren arrazoibide horiek. Haietan, hierarkizatzearen justifikazioa argudiatzen da prozesuak kuantifikatzen dituzten teoria zientifizisten bidez, eta hori zalantzazkoa da sozialki, haien konplexutaxuna kontuan hartuta, batetik, eta gizakioi berezkoak zaizkigun hainbat gauza neurtzeko ezintasuna, bestetik (Rose, 1991 eta Chang, 2002). Alde horretatik, eta nahiz eta estatistikek asko laguntzen diguten errealitate desberdinak ulertzen, ezin dugu ahaztu haiek askotan arrazoibidea sortzen dutela, arrazoibide bakarra (Chimamanda Ngozi Adichie, 2018). Izan ere, ikuspegi bat abiarazten dute, errealitateak ez ezik, Foucaultek (1992) *egiaren erregimena* esaten diona ere eraikitzen dituen. Halakotzat jotzen da errealitateak eraikitzea errepikatzearen bidez, arlo akademikoari lotutako botere-taldeen bidez, gobernuetako bulegoen edo presio-taldeen bidez, eta azkenean “egia absolutu” bihurtzen direnak, zalantzan jarri ezin diren egiak.

Horri dagokionez, garrantzitsua da jakitun izatea errealitatea deskribatzeko dugun moduak, batzuetan, gure iritzia antzematen ere uzten duela, normaltasunei vs anormaltasunei lotuta dauden gehiengoak vs gutxiengoak sortzen. Alde horretatik, adibide gisa balio digu *desira erotikoak* eta bai *sexu-identitateak* ere.

Desira erotikoari dagokionez, homosexualez eta heterosexualez hitz egiten da. Hartara, homosexualak beren sexu bereko pertsonak desiratzen dituztenak dira, eta heterosexualek, beste sexuko pertsonak desiratzen dituztenak. Bi hitz horien etimologiari erreparatzen badiogu, ordea, beren esanahia ez da zehazki hori; izan ere, “homo” hitzak *berdina* edo *bera*

esan nahi du, eta “sexual” hitzak adiera desberdinak ditu, orain arte aztertzen aritu garen dibertsitatearen barnean. Hortaz, “homosexual” hitza erabiltzen badugu, zaila da ulertzea zertaz ari garen zehazki. Pertsona batek nor desiratzen duen definitu nahi badugu, *andrerastia* (*andros*: gizona + *erastia*: desira erotikoa=gizonenganako desira erotikoa) eta *ginerastia* (*ginos*: emakumea + *erastia*: desira erotikoa=emakumeenganako desira erotikoa) hitzak erabil ditzakegu, desiratzen duen pertsona zein sexutakoa den gorabehera. Hitz horiek baliatuta hitz egingo bagenu, emakume homosexualek eta gizon heterosexualek kategoria partekatuko lukete, hau da, haiek guztiak ginerastak dira. Eta datuak bilduko bagenu, ikusiko genuke biztanleriaren erdia gutxi gorabehera ginerasta dela eta beste erdia andrerasta, zein sexutakoak diren gorabehera.

Gauza bera gertatzen da *sexu-identitateari* dagokionez, pertsona batzuk emakume sentitzen baitira eta beste batzuk gizon. Sozialki, pertsona horiek transexual gisa kategorizatzeke joera dago (sentitutako sexua jaiotzean izendatutako sexuarekin bat ez datorren pertsona), eta haien aurrean zisexualak daude (sentitutako sexua eta jaiotzean izendatutako sexua bat datorren pertsona) daude. Hala ere, berriro ere, termino horiek ez dute asko argitzen deskribatu nahi duten errealitatea. Alde horretatik, interesgarria izan daiteke ordezeko termino moduan *egoginia* (*ego*: ni + *ginia*: ginosena, emakumea=emakume sentitzea) eta *egoandria* (*ego*: ni + *andria*: gizona=gizon sentitzea) baliatzea, eta, hartara, gizon eta emakumeez hitz egingo genuke, beren genitalak gorabehera. Ikus daitekeen moduan, erabiltzen diren kontzeptuek, askotan, sortu zituen pertsonaren moralaz edo iritziaz hitz egiten dute gehiago egintzaren deskribapenaz baino, eta, horrenbestez, ordezeko gisa proposatzen ditugun aukerako termino hauek, integratzaileagoak izateaz gain, esparru berria ere badakarte errealitateari begiratzeko.

Hori guztia aintzat hartuta, interesgarria da nabarmentzea sozialki beste ikuspegi batzuk behar direla, errealitatea ulertu, begiratu, izendatu eta eraikitzeke beste era batzuk, eta horrek, ezinbestean, “normaltasun” normatiboa esaten dioguna zalantzan jartzera eramaten gaitu. Ikuspegi zabalago eta integratzaileagoekin lan egiten hasi behar dugu, hau da, dagoen errealitate desberdin eta askotarikoarekin.

Edonola ere, interesgarria iruditzen zaigu, une historiko honetan –bai gizarteari dagokionez eta bai, batez ere, LGTBI+ mugimenduari dagokionez ere–, sigla horiek erabiltzen jarraitzea, haiei esker: diskriminatuta dauden errealitateak ikusgai egiten baitira, kolektibitatea sortzen baita eta berdintasunaren aldeko baterako aldarrikapenak sustatzen baitira. Hori guztia, jakina, inklusiboagoa den arrazoibide baterantz bidea egiteko helburua gogoan izanda. Hartan, pertsonak jakitun izango dira *sexu-identitatea*, *desira erotikoreen orientazioa* eta *genero-rolak* eta *-identitateak* denok zeharkatzen gaituzten egintzak direla.

3. Transexualitatea: dibertsitate sexualaren beste egitate bat

Zer da egiaz transexualitatea?, zertaz ari gara transexualitateaz hitz egiten dugunean? Sexologia sustantibotik, transexualitatea definitu behar bagenu, esango genuke *sentitutako sexua* jaiotzean *izendatutako sexuarekin* bat ez datorren izaera dela. Baina jakinda pertsona guztiak izaki sexuatuak garela, esan ahal izango genuke transexualitatea dibertsitate sexualaren beste egitate bat dela. Gizartean gero eta toki gehiago ari zaio ematen, eta aztergai ere ari da izaten. Hala eta guztiz ere, esan behar da oraindik bide luzea dagoela egiteko. Unitate didaktiko hau bide hori egiteko saiakera bat da, ahalik eta integratzaileenak diren premisa batzuekin, errealitate honetan lagun egitea erraztuko dutenak.

Transexualitatea dibertsitate sexualeko beste egitate bat dela adierazten dugunean, horren gaineko terminologia askotarikoa eta desberdina aurki dezakegu: pertsona transexualak, transgeneroa, trans*, transexualitate-egoeran dauden pertsonak, bulba duten gizonak eta zakila duten emakumeak, eta abar. Adiera horiek guztiek, azken batean, gauza berari buruz hitz egin nahi dute, baina ikuspuntu eta esparru teoriko desberdinetatik egiten dute, kontzeptu propioak eraikiz. Egia da “trans-“ aurrizkia daraman terminoak erreferentzia egiten diola edo nabarmentzen duela aldaketa bat, igarotze bat, baina azaldu den moduan ez da pertsona hori igarotzen dena, baizik eta gizarteari adierazten diona ez dela ikusten ari bera den bezalakoa. Kolektiboaren barnean, terminoen gaineko eztabaidak daude, batez ere, bi alderdi hauekin lotuta. Alde batetik, beren buruari nola deitu behar dioten, transexual edo transgenero. Terminologia bat edo bestea erabiltzea jatorria duten esparru epistemologikoaren mende egoten da. Badago, ordea, trans* identitateen terminoa erabiltzeko esan gabeko adostasuna, gainerako guztiak barnean hartzen dituela ulertzen baita. Eta beste alde batetik, oro har, taldeko pertsonak berak dira bulba duten gizonak eta zakila duten emakumeak hitz egitea nahiago izaten dutenak; azken batean, hori baita direnak, gizonak eta emakumeak, beren berezitasunekin, gainerako pertsona guztiak bezala. Baina, gainera, transexual edo transgenero terminoak bultzatzen duelako pentsatzera ez direla gizonak edo emakumeak. Ikus daitekeen moduan, zaila da terminologia aukeratzea, nahiz eta gauza berberari buruz hitz egin nahi duten, kontzeptuetako bakar bat ere ez baita guztiz osoa. Hori dela-eta, unitate honetan termino horiek guztiak erabiliko ditugu, era berean. Kasu guztietan, erabiltzen den hitza erabiltzen dela, adierazi nahi dira jaiotzean izendatutako sexua eta sentitzen duten sexua bat ez datozen pertsonak.

Transexualitatea, azkenaldian ikusgai egitean aurrerabide handi eta garrantzitsua izan duen arren, ez da modan dagoen zerbait, apeta bat edo aukera bat. Diskurtso horiek guztiek, nolabait, dibertsitate sexualeko egitate hori “anormalizatzen” jarraitzen dute, izan ere. Dena dela, egia da transexualitate-egoeran dauden pertsonen zein motatako igarotzea egin nahi duten aukeratzen dutela, zein puntutaraino aldatu nahi duten beren itxura fisikoa eta zein modutan adierazi nahi duten gizartean beren sentitzeko era. Igarotze bakoitza desberdina da, pertsona batentzat baino balio ez duena, bere biografia kontuan hartuta, eta hauen bidez emanda etor daiteke: izena aldatzea edo ez, hormonak hartzea edo ez, kirurgia-ebakuntzak egitea edo ez, eta abar, edo baita inolako aldaketarik ez egitea ere.

Aurretik aipatutako guztia aintzat hartuta, hortaz, laburpen gisa, esan daiteke ez dagoela gorputz okerrik, baizik eta erreferentzia-esparru mugatzaileak, errealitateari erantzuten ez dioten eredu sozial hegemoniko hierarkizatuak edo imaginario homogeneousatuak, gorputzak eta identitateak dibertsitatetik azaltzen ez dituen gizarte batean.

a. Dinamika sozial giltzarriak transexualitate-egoeran

Normatiboak ez diren identitateei dagozkien alderdiek hainbat zailtasun ekartzen dituzte berekin bizitzaren ikuspuntu desberdinetan, “normaltasunetik” kanpo baitaude, hau da, gizartean nagusi den arautik. Horrek, zenbaitetan, zailtasunak ekartzen ditu familian, ikastetxean, lagunekin, bikotekidearekin, lanean eta abarretan. Alde horretatik, bi alderdi nabariarazi nahiko genituzke. Alde batetik, inork ez dituela betetzen itxaropen sozialak bere bizitzaren alderdi guztietan. Izan ere, dibertsitate zabala dago *betetze vs ez-betetze continuum* batean. Hori horrela izanik ere, uste da arauak eta itxaropenak malgutzeak, imaginarioa zabaltzeak eta dibertsitatea balio moduan praktikan emateak pertsona guztien bizitza erraztuko lukeela eta dagoen pluraltasun sozialari lotutako ondorioak murriztuko lituzkeela. Eta beste alde batetik, identitateak “ezin mugituzkoak” direla adierazten duen idearen

gainean eraikitzen direla eredu hegemonikoak, bizitza osoan zehar duten prozesu dinamikoa ukatuta. Pertsona guztiak hazten goaz, eta, horrenbestez, aldatzen. Transexualitate-egoeran dauden pertsonen kasuan, *normatiboa ez den nor bere identitatea onartzeak* eta “begiratzten zaituen” jendeak onartzeak edo ez (epaia) –ezin dugu ahaztu, dagoen gizarte-egitura berean hezitako jendea dela– berekin dakarren eragozpenaz gain, beste hiru eragozpen daude, eraisteko landu behar direnak. Lehena askotan berak bakarrik beren buruari azalpenak eman behar izatea. Izan ere, bi testuinguruetan, barnekoan eta kanpokoan, beren buruarentzat eta bai gainerakoentzat ere pedagogo bihurtu behar dute. Lan handi eta garrantzitsua egiten dute ulertzeko bat ez datozen eta berak ikusten duena azaltzen ez duten arau batzuk berregituratzeko. Borroka-testuinguru bat da, agindu mugatzaileak, hierarkikoak eta binarioak (gizona/zakila/maskulinitasuna vs emakumea/bulba/feminitatea) urratuko dituzten gidoi berriak barnean hartu nahi ez duen kanpoko mundu batekikoa. Eraitsi beharreko bigarren oztopoa da, behin bere buruari azaldu dionean (hori ez da beti gertatzen), azalpen hori *ikuspegi patologizatzaile eta normatibo* batetik ematen dela, sakonki aurkakoa izaten dena. Eta hirugarren oztopoa berritzaile ere gizartearen egiturari egiten dio erreferentzia. Izan ere, norbaitek bere burua ulertu eta onartzen duenean, askotan, ohartzen da arazoa ez dagoela beregan, baizik eta gizon batek eta emakume batek nolakoa izan behar duen adierazten duten eredu hegemoniko nagusietan, eta etengabe erreproduzitzen direnetan.

Hala ere, badira inguruneak non pertsonaren sexu-identitatea hasten den begirada soil eta erraztaile baten bidez: “zu benetan zara, zarela esaten didazun hori”. Dibertsitatean oinarritutako interakzioaren eta gogoetaren bidez sortutakoak eta eraikitakoak dira. Haietan onartu egiten da, errespetatu eta lagun egiten da, eta horrek ahalbidetu egiten du “nor naizen” baten gauzatze biografikoa, osoa eta integratzailea, dagoen dibertsitate sozialari erantzun dion imajinarioa zabaltzean oinarritutakoa.

b. “Aldaketa fisikoez eta/edo estetikoez harago” joanda, egin litezkeen igarotze desberdin eta askotarikoak

Trans* kolektiboaren borrokari esker (Platero, 2014), aurrerapen asko lortu dira eta profesionalen begirada pertsona transexualekiko gero eta gutxiago da patologizatzailea, nahiz eta egun oraindik ere gauza asko dagoen lortzeko. Trans kolektiboak egin izan duen aldarrikapen historikoetako bat da pertsona bera izatea bere burua determinatzen edo zehazten duena. Hau da, bera izatea erabakitzen duena nor den eta zein aldaketa egin nahi dituen edo ez bere gorputzean, ingurunean eta abarretan.

Autodeterminazio horren aurrean, Nafarroan eta Estatuko beste toki batzuetan, duela gutxi arte, **protokolo** bat genuen, zeinak bide bakarra ezartzen baitzuen pertsona guztientzat.

- Pertsona transexualak kontsultara joan behar zuen profesional psikiatra edo psikologo batengana, eta haren **diagnostikoa “genero-disforia” izaten zen**, nortasun- edo genero-nahasmendua ere esaten zitzaiona, sentitutako sexu-identitatearen eta jaiotzean izendatutakoaren artean adostasunik-ezarengatik nahigabe edo ondoez esanguratsua zegoela uste baitzen. Diagnostiko horren ondotik tratamendu mediko eta lege-tratamendu batzuk etortzen ziren, diagnostiko informatu horri lotutakoak. Pertsona, orduan, protokolo baten barnean sartzen zen, baldintza oso zehatzak eta sakonak eskatzen zituen, ez betez gero, protokolotik kanpo uztea ekartzen baitzuten. Horren adibide izan zitekeen, beren gorputzarekiko ondoeza ez bazuten agertzen, ez zirela “genero-disforia” zuten pertsona moduan diagnostikoa egiten, eta, beraz, haietako askok bere burua behartuta ikusten zutela itxurak egitera helburua lortu ahal

izateko: protokoloan sartu ahal izateko bidea ematen zuen diagnostiko informatua eta, beraz, lehenago esan den moduan, zenbait tratamendu mediko eta lege-tratamendu bat zuen estaldura publikoan.

- Gainera, **“benetako bizimoduaren testa”** esaten ziotena ere egin behar zuten: sentitutako sexuarekin bat zetorren eran jantzi, sentitutako sexuaren arabera jokatu, familiari eta inguruko sare sozialari jakinarazi, eta abar.
- Jarraian, **hormonak hartzeko tratamendua** has zezaketen, nahi bazuten.
- Eta amaitzeko, nahi izanez gero hori ere, **kirurgia-ebakuntza** egitea erabaki zezaketen.

Izena aldatzeko eta sexua erregistroan aipatzeko kontua (eta, horrenbestez, Nortasun Agiri Nazionalean agertzea), gutxienez, tratamenduan bi urte eman eta gero baino ezin zitekeen egin.

Funtzionatzeko dinamika hau, *expertía* izenekoaren gainean eraikia –gizartea kontrolatzeko modu gisa, legezkotzat jotako arrazoibide adituen bidez Estatuak ikusezin bihurtua, “[...] bere erantzukizunari uko egiteko joera dago, profesional espezializatuen kidego baten gain utzita. Profesional espezializatu horiek agintez inbestitzen dira, baldin eta egokitasun-titulu bat erakutsi badezakete” (Izquierdo, 2001, 15. eta 16. or.)– eta prozesu horietan medikuak agintari-figurak zirela kontuan hartzearen pean, trans pertsonen aurrean, gatazka-iturri handia izan da, medikuen eta trans kolektiboaren arteko harreman profesionalak (medikua vs gaixoa) markatu dituen luzaroan. Izan ere, horrek berekin ekartzen zuen zenbateraino eta nola zen bat emakume edo gizon “erakutsi” behar izatea, hori izugarri zaila dela kontuan hartu gabe, ez baitago emakume edo gizonik beste baten berdina denik. Eta gizon femeninoa izateak, adibidez, edo bulba duten gizonak nahi dituen gizona izateak pentsarazten zien medikuei aurrez aurre zutena ez zela trans pertsona bat. Ideia estereotipatu eta murriztaile horren atzean, ezaugarri horiek “ez hain gizon” egiten zaituzteten sinesmena dago, eta, beraz, bulba duzula jaiotzen bazara eta gizonak desiratzen badituzu emakumea zarela. Eta hori okerra da, lehenago ikusi dugun moduan, ez zure desira erotikoa ez eta zure jokaera-ereduak ez baitute zehazten zure sexu-identitatea.

Zorionez, egun, Nafarroan, *LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legeari* esker, lortu da trans pertsona bera izatea nor den ezartzen duena, bere burua gizon edo emakume moduan zehazten duena (pertsona zisexualek bezala) eta horren ondoren, nahi badu, pertsona transexualentzako berariazko osasun-programa batera (Transbide) joan daiteke, nahi duen tratamendu medikoa eskatzeko. Hasieran esan den moduan, Nafarroak lege hori du taldeen borrokari esker eta erakundeek eman duten laguntzari esker, baina beste autonomia-erkidego batzuetan ez dute egoera bera. Hori horrela izanik ere, izena aldatzeko eta sexua aipatzeko dagokionez, Nafarroan Estatuko legeak arautzen du, eta, beraz, beste autonomia-erkidego batzuetan bezala, bi urteko tratamendua behar da gutxienez alde horretatik beharrezkoak diren aldaketak eskatu ahal izateko. Hori dela-eta, trans taldeek eta pertsonak borrokan jarraitzen dute lege diskriminatzaile horren aurka, ez baititu izendatzen haiek nahi duten moduan.

Hemen antzeman daitekeen moduan, trans pertsonak eurek duten autodeterminazio-botereari esker, asko eta askotarikoak dira pertsona horiek egin ditzaketen igarotzeak. Aldaketa horiek *beren burua izendatzekoak* izan daitezke (izena aldatzea, izenordainak), *estetikoak* (janzkera edo orrazkera aldatzea, makillajea, depilatzea...), *hormonalak* (hormonak hartzeko tratamenduak: txaplatak, pilulak, injekzioak...), *kirurgiakoak* (zenbait ebakuntza gorputzeko atalak maskulinizatzeko edo feminizatzeko: mamoplastiak, baginoplastiak, faloplastiak), eta abar. Pertsona bakoitzak erabakitzen du zein aldaketa behar dituen edo egin nahi dituen bere buruarekin ongi egoteko, eta, bistakoa denez, aldaketa horietako bat

gauzatzeak ez dakar berekin zenbait edo denak egitea. Ezin dugu ahaztu aldaketa horien xedea dela haiek sentitzen diren moduan *irakurtzea* edo ikustea gainerako pertsonen. Hau da, bulba zuela jaio zen gizon bat gizon sentitzen da, hori da bere gorputza, baina edozein tokitara joanda ere emakume gisa irakurria izateko zailtasuna du aurrez aurre. Eta hori izaten da eskuarki aldaketaren bat egitea erabakitzeke arrazoia, beren bizitza errazteko, kasu honetan gizon moduan, eta gainerakoek bera den bezala irakur dezaten. Horrelako egoerek agerian uzten dute eragileak erlaxatuagoak leudekeen gizarte batean, alde horretatik egingo liratekeen aldaketak intentsitate txikiagokoak izan ahal izango liratekeela.

c. Igarotzean lagun egitean giltzarriak diren eragile sozialak: familia, ikastetxea, lagunak, bikotekidea, edukiz gero, eta lana

Transexualitatearen dibertsitate sexualak ekartzen du igarotzeak ez egitea trans pertsonen bakarrik, baizik eta bai beren ingurune osoak ere, modu batera edo bestera, haiekin igarotzen baita. Alde horretatik, idealena da ingurune horrek bere hizkuntza egokitzea eta lagun egitea pertsonari, ulertuta gizon edo emakume izatea ez dagoela genitalean, baizik eta norbere *sentitzean eta jakitean*. Hori, ordea, ez da erraza kasu guztietan, eta, batik bat, lehenbiziko uneetan, egoera berria edo harrigarria izan daitekeenean. Hori horrela izanik ere, hil edo bizikoa eta, jakina, oso garrantzitsua izaten jarraitzen du pertsonak egiatan nor den kontatzeko erabakia hartua izatea. Kasu gehienetan, ingurunea berreraiki egingo da –familia, lagunak, eskolaren edo lanaren esparrua, bikotekidea, halakorik edukiz gero, eta abar–, eta ingurune horrek ere igaro beharko du begirada berri horretarantz. Begirada berri horrekin, hain zuzen, pertsona ulertu ez ezik, ikusi ere egin beharko dute. Hortaz, esan liteke **ez dela pertsona aldatzen dena baizik eta gainerakoen begirada harenganako**. Lagun-egite hori sentitzea desberdintasuna izan liteke bizi-ibilbidean.

Pertsona askoren igarotzeko bizi-prozesua eratzen duten agente sozial ugari daude, eta guk haien artean bost nabarmenduko ditugu: familia, ikastetxeak, lagunak, bikotekidea, edukiz gero, eta lana.

- **Familia**

Familia-eredu asko eta desberdinak aurki ditzakegu, baina, zentzu horretan, familiaz hitz egiten dugunean, zaintza-, babes- eta maitasun-inguruneari egiten diogu erreferentzia, nork eratzen duen gorabehera. Ingurune hori, gizarteratzeko jatorrizko zelula gisa eta norbanakoaren eta gizartearen arteko giltzarri moduan, funtsezko habea da pertsonaren garapenean, batez ere autonomia erabateko bilakaeran dagoen garaietan. Garen hori esanahiz hornitzen hasten garen lehen erreferentzia da, eta familiak duen bizi-imaginarioa abiapuntu gisa hartzen da gure existentzia osoa azaltzeko.

Bulba duten mutikoen eta zakila duten neskatoen kasuan, gaur egun ere, ez dira sartzen familiek seme edo alaba bat den eta izan behar duenaren gainean duten bizi-imaginario horretan. Hori dela-eta, eta erreferentteez hitz egiten dugunez, ezinbestekoa da eredu berriak sartzea, dagoen errealitatea eta dibertsitatea ikusgai egiten dutenak, adibidez, erabiltzen ditugun adierazpideetan edo kontatzen ditugun ipuin, elezahar eta istorioetan. Zenbat eta zabalagoa izan imaginarioa, orduan eta dibertsitate gehiago sartzen dira, aberatsagoak dira gizarteak, eta errazagoa eta positiboagoa da pertsonen garapena eta nork bere burua ezagutzea, eta bai bizikidetzatza, ulertzea eta ongi moldatzea.

Familia zaintza, babes eta maitasuna emateko ingurune gakoa eta lehena den aldetik, funtsezkoa da prozesu hauetan. Hori dela-eta, batek dela adierazten duen moduan onartua, lagun egina eta aipatua izatea berebiziko garrantzia duen babes-iturria da.

- **Ikastetxeak**

Kontuan hartzen baditugu neska edo mutiko batek ikastetxean ematen dituen orduak, egunak eta urteak, izugarritzko garrantzia du ikastetxe hori gune irekia, errespetuzkoa, errealitate anitz barnean hartzen dituen, desberdin eta askotarikoa, LGBTIfobiarik gabea eta ikasle guztientzat segurua izatea. Trans pertsonen kasuan, gainerakoentzat bezala, oso garrantzitsua da beraiek diren moduan aitortuak izango diren toki bat izatea eskola, sentitzen dituzten izenaren eta izenordainaren bidez izendatuak. Hori izaten da, gainera, trans pertsonak egiten duten lehen eskaeretakoa bat: diren neska edo mutil moduan ezagutuak izatea nahi dute. Sentitutako izenarekin identifikatzea bezain erraza den kontua, eta irakasleetakoa batek harekin harremana duen bakoitzean haren sentitzearen pean egitea eta, hortaz, egiatan haiei hitz egiten dietela sentitzea. Ikastetxeekin lotuta egin ohi den beste eskaera nahiko ohiko bat sexuen arabera bereizitako tokiak pertsona bakoitzak sentitzen duenaren arabera erabiltzeko eskubideari dagokio (komunak eta aldagelak, esate baterako).

Horretarako, beharrezkoa da ikastetxea, inklusiboa izateaz gain, pertsona bakoitzaren erritmo eta beharrekiko errespetuzkoa ere izatea, ikasleei lagun eginez beren bide anitz eta askotarikoetan.

- **Lagunak**

Lagunak gure bizitzako sozializazio-agente eta “finkagailu” garrantzitsuenetako bat dira, babes-eta sostengu-iturri baitira, batetik, eta nortasuna ere sortzea ekartzen duen talde-espazioa ere bai baitira, bestetik, interakzio pertsonalaren esparruan. Pertsona guztientzat bezala, trans pertsonentzat, lagunak, haien maitasuna eta norbera den moduan onartzea garrantzitsua da. Haurtzarotik bertatik, eta batik bat nerabezaroaren inguruan, inguruan ditugun pertsonak izatea ekartzen digute, sentiarazten digute eta garen moduan onartzen gaituzte. Trans pertsona batek gizartearen jakinarazten duenean nor den egiatan, oso garrantzitsua da lagunek sostengua adieraztea eta hasi nahi duen prozesuan lagun egitea, horrek taldeko kide izaten jarraitzea ekarriko baitio eta, gainera, taldearen barnean garrantzitsua eta maitea dela sentituko baitu. Eta hori hil edo bizikoa da autokontzeptu eta autoestimu positiboa izateko. Izan ere, lagunek lagun egitea erabakigarria da bizitzaren sostengurako, hartako unea edozein dela ere (haurtzaroa, nerabezaroa, gaztaroa, helduaroa...).

Halako prozesuetan lagun egiteko, giltzarria den maxima bat dago: pertsonari entzutea eta galdetzea nola nahi duen lagun egitea. Bere izatea onartzea eta nahi duen moduan tratatzea. Gogoan izanda pertsona bakoitza desberdina dela, batzuk ireki edo kanporakoiagoak direla, beren kezkak konpartitzen dituztela, eta beste batzuk itxiak edo barnerakoiagoak direla, ez dutela egiten edo hain nabarmena ez den modu batean egiten dutela.

- **Bikotekidea, edukiz gero**

Igarotze prozesuetan garrantzitsua den beste gai bat bikotekidea da, halakorik edukiz gero. Izan ere, kasu gehienetan, trans pertsona bat “armairutik ateratzen denean”, horrek beste pertsona ere mugiarazten du eta eskema asko mugitzen ditu beren bikote-harremanean. “Zein da orain nire orientazioa? Gizon moduan ezagutu nuen emakume honekin egon nahi dut?”. Alde horretatik, galdera asko sortzen dira, nagusiki, dagoen gizarte-egiturari lotutakoak (egitura sexual binomikoa, generokoa, eta abar). Eta galdera horiek ez dira hutsalak; izan ere,

batetik, erotikari buruzko pertzepzio jakin bat dugu eta emakumeak gustatzen zaizkigunean gorputz bat espero dugu eta gizonak gustatzen zaizkigunean beste bat —ez dugu kontuan hartzen giza dibertsitatea, eta gizonen gorputz desberdin eta askotarikoak eta emakumeen gorputz desberdin eta askotarikoak daudela—, eta, bestetik, harreman-eredu koitozentrista, heterozentrista eta maskulinoa femeninoaren gainean nagusitzen dena izaten dugu abiapuntu. Eta hori da, hain zuzen, gida didaktiko honen helburua: eredu horiek, imajinario horiek, desmuntatzea, zurrunkak, baztertzailak eta mugatzailak izateagatik. Orientazioen, desiren, sexualitateen, praktiken, gorputzen eta haien gozamenaren dibertsitatearen integrazioak bezala, genitaleetatik harago, pertsona guztioi laguntzen diguna, baita trans pertsonen ere, bidea bikotekideekin egitea da.

- **Lana**

Lana gizarteratzeko elementu giltzarrietako bat da, eta igarotze-prozesua, bai lana lortzeko bai eta mantentzeko ere, zaila izaten da zenbaitetan, dela igarotzea lana bilatzean egiten bada, CVA bera izan baitaiteke tranpa, dela lan egonkor baten barnean egiten bada, diskriminazio eta transfobia forma desberdinak ager baitaitezke.

Lan bila ibiltzearekin lotuta, bi egoera azpimarratu ahal dira. Lehen curriculum vitaeari dagokiona, pertsona bakoitzak bere izena (eta izen hori femenino edo maskulino moduan identifikatu ahal da) eta argazkia jartzen baitu, eta hori, pertsona transexualen kasuan, zailtasuna izan daiteke. Izan ere, une horretan duen irudiaren arabera, gerta daiteke CVA ematean zailtasunak jartzea edo galderak egitea horri dagokionez, curriculumean ikusten dena eta errealtatean ikusten dena bat ez etortzean. Eta horrek une zailak bizi behar izatea ekar dezake, baita estresekoak ere, inolaz ere beharrezkoak ez direnak. Eta bigarrena elkarriketa pertsonalak edo baita telefono bidezkoak ere egin behar izatea, ahotsaren kontuarengatik. Curriculumean emakume bat ikusteak, emakumezko izena duenak nahasketa ekar dezake eta bai hitz egiten ari dena beste pertsona bat dela pentsaraztea ere.

Eta pertsona batek igarotzea hasten duenean jada lana baduen kasuetan ere zailtasunak ager daitezke, batez ere, sexuen arabera bereizita egon ohi diren tokiak erabiltzean, hala nola komunak eta aldagelak. Halako kasuetan, gerta daiteke igarotze-egoeran dagoen pertsona bera deseroso egotea, une horretan ez delako sentitzen bere gorputzaz seguru, eta horregatik uste da oso garrantzitsua dela gainerako lankideek lagun egitea une horretan, pertsona horrek bere tokia izatea eta eroso eta seguru sentitzea erraztuta. Horretarako, interesgarria da enpresek jakitea eta babestea pertsona dela nor den badakiena eta zein lekutan egon nahi duen, eta jarduteko protokoloak izatea, LGBTIfobiaren ondorioz inolako bereizkeriarik gertatzen bada, jarduteko.

Lagun-egite garrantzitsu horretan giltzarriak diren bost agente horiez gain, igarotze-prozesuetan ere, garrantzitsutzat jotzen da nabarmentzea zailtasun gisa, batik bat nortasun ez-normatiboak dituzten pertsonen kasuetan, eta, horrenbestez, trans pertsonentzat, nagusi den genero-egitura, zeinaren barnean matxismoa azpimarratzen den. Igarotze guztiak dira konplexuak, baina gizarte-mailari eta onarpenari dagokionez, errazagoa izan ohi da “femeninotik” “maskulinora” igarotzea. Bestela esanda, bulba duela jaio den pertsona bat, egoandrikoa bada, errazago onartzen da, zakila duela jaio den egoginiko bat baino. Izan ere, “igo” egiten baita gizarte-hierarkiaren barnean; emakumea zela pentsatzetik (nahiz eta inoiz ez zen izan) gizon izatera igotzen baita, eta kontrara, pertsona egoginiko hori jaitsi egiten da gizarte-mailan, gizon moduan irakurri izan bada ere, emakumea baita. Hori beste kasu batzuetan ere gertatzen da; esate baterako, gay kolektiboaren beraren barnean onarpen handiagoa dute gizon maskulinoek femeninoagoak direnek baino. Izan ere, LGBTI arloan oso

ezaguna den diskriminazio honetaz hitz egiten duen hitz bat bada: *plumafobia* –“emagizon” moduan hautematen diren gizonenganako arbuioa eta bereizkeria–. Bulba dutela jaiotzen diren emakumeen artean gertatzen denaren antzeko zerbait: femeninoagoak direnek aitorten sozial txikiagoa dute maskulinoagoak direnek baino. Edo emakume lesbianen ikusezintasuna gizon gayen aldean.

Hori dela-eta, interesgarria da zalantzan jartzea genero-egiturak ezarritako hierarkizazioa eta feminitateari eta femeninoari lotutako balio txikiagoa. Gakoa da, generoa desmuntatzeko estrategia moduan, lantzea eta zentralitatea, espazioa eta balioa partekatzen maskulinitasunarekin, biak ala biak dibertsitatea dakarten eta gure gizartea aberasten duten moduak baitira, beren izateko, egoteko, elkar ulertzeko, bizitzeko, adierazteko eta abarretarako modu askotarikoekin.

d. Bidaia honetako bide guztiek... dibertsitate sexualera eramaten dute

Bidaia honetan, egiatan al da transexualitatea gure helmuga? Edo beste geraleku bat da, gure begirada zabaltzeko bidea emango duena?

Transexualitateak, unitate didaktiko honetan landu ditugun kontzeptu desberdinek bezala, helburua du gure “*gizon eta emakume egitean*” pertsona bakoitzak bere bidea duela ulertzea erraztea. Gauzek nolakoak izan behar duten markatzen duen ikuspegi preskriptiboa amaitu nahi du hemen aurkezten den proposamenak eta errealitatea hautemateko modu berriak sartu nahi ditu:

- Ikuspegi berriak, non *imaginario zabaldua erlazio-eremu bitala* den.
- Ikuspegi berriak, non *errepikatzen den arau bakarra dibertsitatea* den.
- Modu berriak, non *izan behar da ordezkatu eta izaten utzi* onartzen den.
- Dinamika berriak, non, susmoak gorabehera, ez den *agintzen edo behartzen*, baizik eta *galdetu* egiten den.
- Harreman berriak, *berdintasunean, ez epaitzean eta bakoitza dena errespetatzean* oinarritutakoak.

Azken batean, dinamika sozialean hobetzeko lortu beharreko helmuga *dibertsitate sexuala* da. Transexualitatea, beste errealitate asko bezala, beste egitate bat gehiago da dibertsitate horretan. Eta, jakina, aberastu egiten gaitu eta, gainera, arreta eman beharreko, ulertu, errespetatu, onartu eta landu beharreko beste berezitasun bat gehiago da.

Gorputz bat gizonarena edo emakumearena da bertan bizi denak adierazten duelako, eta ez beste batzuek adierazten dutelako.

VI. Jarduerak

Jarraian aurkezten diren jarduerak zenbait saiotan banatuta daude, zehazki hamarretan, eta *dibertsitate sexualen* arreta jartzen duen hari gidariari jarraitzen diote. Alde horretatik, gomendioa da saioetako lehenbizikoan hari gidari hori esplizitu bihurtzea eta ikasleei adieraztea dibertsitate sexual hori dela hurrengo hamar saioetan jorratuko dena, batez ere, edukien lau blokeren gainean eraikita: lehena kontzeptu sexologiko gakoei dagokiena (1., 2. eta 3. saioak); bigarrena sexu-identitateari buruzkoa (4. eta 5. saioak); hirugarrena

transexualitatearen gainekoa, gai giltzarria unitate didaktiko honetan (6., 7., 8. eta 9. saioak); eta laugarrena, amaitzeko blokea, ikasitako guztia laburtuko duena eta sexu-dibertsitateari dagokionez imajinarioa zabaltzea ikusgai egitea ekarriko duena (10. saioa).

Metodologiaren atalean adierazi zen moduan, interesgarria da gogora ekartzea, saioetako bakoitza hasi aurretik, unitate didaktiko honekin lanean hasi ginenetik adostu genituen interakzio sozialeko gutxieneko irizpide batzuk daudela eta saio bakoitzean jarraitzen dutela, errespetuan, entzutean, epairik ez egitean oinarritutakoak; eta bai genero-ikuspegia barnean hartzen dutenak ere (ikaskide neskei hitz egiten uztea, talde txikiak eratzea nesken arrazoibideak entzun ahal izateko, neskek ere bozeramaile gisa parte hartzea bultzatzea, eta abar).

1. KONTZEPTU SEXOLOGIKOAK 1. *Sexua: haietako zein, edukitzen dena, egiten dena edo norbera dena?*

*Aukerakoa da unitate didaktikoa hasteko ikasleekin ideia-jasa bat egitea dibertsitate sexualaren kontzeptuaren gainean edo zuzenean hastea jarraian proposatzen diren dinamikak egiten.

Unitate didaktiko honetako lehen saioaren arreta kontzeptu metodologikoak argitzean jarriko da, garrantzi berezia emanez gai honen gainean taldeak jada baduen ezagutzari. Horretarako, ikasleek jada badakitenari buruzko ikertze eta batera jartze dinamika bat egingo da, izenburu hau duena: ***Sexuari buruzko ideia-jasa***. Horrek, gainera, ahalbidetuko digu ikasle horiek duten edukien maila eta izan ditzaketen beharrena aztertzen.

Lehen saio honek bi zati edukiko ditu.

Aurrenekoa sexuaren kontzeptua lantzeko, ***ideia-jasa*** baten bidez. Zehazki, hau galdetuko diegu ikasleei: *Zer datorkizu burura “sexu” hitza entzun, irakurri edo ikusten duzunean?* Taldean sortzen diren ideiak biltzeko, jolas hau egingo da. Ikasleak lau taldetan banatuko dira, eta bakoitza ikasgelako izkina batean kokatuko da. Erdian, kartoi bat egongo da talde bakoitzerako, eta erdian “sexu” hitza edukiko du idatzita. Parte-hartzaileek txandakako lasterketa egin beharko dute, beren irteera-gunetik kartoi meheraino, eta iristen direnean hitz bat idatzi beharko dute, “sexu” hitza irakurtzen dutenean burura etorriko zaien aurrenekoa. Bizpahiru txanda egingo dira, ikasgelan dauden ikasleen kopuruaren arabera. Amaitutakoan, batera jarriko dira idatzi diren hitz guztiak eta ulertzen ez diren kontzeptuak argitu egingo dira, pertsona guztiek informazio berbera eduki dezaten. Bestela esanda, ikasleei galdetuko zaie ea denek ulertzen dituzten kartoi mehean jaso diren kontzeptuak eta, ez bada hala, azaldu egingo dira: edo idatzi duen pertsonak berak, saioa dinamizatzen duten irakasleek lagunduta edo ez, edo azken horiek azalduko dute, uste badute hitzak ez direla zuzen kontzeptualizatu edo ez direla guztiz argi gelditu. Irakasleak ez badaki zer esan nahi duen kontzepturen batek –ez dugu zertan dena jakin–, laguntza eskatuko die ikasleei edo bilaketa egingo du haiekin. Kasuetako edozeinetan, nabarmendu behar da ekarpen, deskribapen, adibide eta/edo kontzeptualizazio guztiak errespetutik egin behar direla.

Bigarrengean, ***ideia-jasan bildutako hitzak hiru zutabetan sailkatuko dira: (1) edukitzen den sexua, (2) egiten den sexua eta (3) norbera den sexua***. Sailkapen hori egingo da hitzak banan-banan irakurrita eta ikasleei kontsultatuta beren ustez zein zutabetan egon behar duten. Ariketa hau egiten da agerian uzteko “sexu” hitzak gure gizartean duen adiera mordoak. Kasu honetan, batez ere, ***norbera den sexua*** landuko dugu, hau da, gizon eta emakumeena.

Materialak:

Dinamika honetan erabiliko diren materialak kartoi meheak eta errotuladoreak dira, kontzeptuak idatzi ahal izateko. Gainera, ezezagunak zaizkigun kontzeptuak bilatu behar baditugu, Internetarako konexioa duen ordenagailu bat behar izatea ere gerta daiteke. Horrez gain, *post it* eta errotuladoreak erabiliko dira, kontzeptuak zutabeetan itsasten joateko: edukitzen den sexua, egiten dena eta norbera dena.

Denbora:

Saio hau egiteko denbora 50 minutu da.

2. KONTZPTU SEXOLOGIKOAK 2. *SexuaK, sexualitateaK eta erotikaK, bat ala zenbait?*

Bigarren saioari ekin aurretik, ikasleei galdetuko zaie ea zer gogoratzen duten aurreko saioan landutakoaz eta zalantzarik gelditu den; izan ere, garrantzitsua baita egiten dena denok ulertzen goazela ikustea eta, baldin badaude, zalantzak argitzea. Gainera, guri *feedback* moduan balio digu, ideia nagusiak helarazten ari diren eta aurreikusitako helburuak lortzen ari diren jakiteko.

Bigarren saio honek, lehenbizikoak bezala, bi zati izango ditu.

Lehenbiziko bat, non, behin **sexua** hitza definitu den, oso garrantzitsutzat jotzen den **kontzeptu hori sexualitatearenarekin eta erotikarenarekin lotzea**. Horretarako, unitate didaktiko honetako eduki kontzeptualen ataleko 6. eta 7. orrialdeak erabil ditzakegu, bereziki nabarmenduta, ideia hauek finkatuta gelditzeko:

- **Sexualitatea: *gure sexualitatea bakana eta paregabekoa da.*** Sexualitatea sexuari dagokio pertsonari nortasuna dagokion moduan. Hau da, denok gara pertsonak/gara sexua, baina bakoitzak bere nortasuna/sexualitatea du. Bakana eta paregabekoa. Horrenbestez, bizipen-alderdia da, bakoitzak bere gizon edo emakume izateko era du eta denak dira zilegiak.
- **Erotika: *erotikak desirez eta jokaerez hitz egiten du, eta, sexualitatea bezala, desberdinak eta askotarikoak dira.*** Emakume eta gizon moduan ditugun desirai egiten die erreferentzia erotikak, izaki sexuatu izateagatik ditugun irrikeri eta beste pertsona erotizatzea eta, beraz, harekin topaketa izatea desiratzea ekartzen dutenei. Beraz, jokaeraren alderdi bat da.

Bigarren zatian, kontzeptu horiek definitu eta gero, gogoeta egin nahi da **pluralean erabiltzeko beharraren** gainean, hartara, gure gizarteetan **dagoen dibertsitatea bildu eta ikusgai egiteko**, ez baitago sexu bakar bat, sexualitate bakar bat eta erotika bakar bat. Helburu horrekin, dinamika hau egingo da: **“Pluralen dinamika”**. Sexuei, sexualitateei eta erotikei buruz hitz egiteko, 1. ERANSKINEAN jasota dauden argazkiak proiektatuko dira. Sexuaren, sexualitatearen eta erotikaren terminoak aurretik azalduta egongo dira, ideia-jasaren ariketan edo saio honetako definizioetan, eta landu nahi dena haien dibertsitatea da. Horretarako, hiru kontzeptu horien gaineko argazkiak emango dira: lehenbizi, ohikoenak diren eta testuliburuetan, telebistan, Interneten eta abarretan agertzen diren eredu sozial estereotipatuena; eta bigarrenik, gure errealitate sozialean dagoen pluraltasuna, eta ikusezin bihurtu ohi dena, erakusten duten beste argazki batzuk. Interesgarri jotzen da dinamika honetan eztabaida egotea talde txikietan eta gero osoko batera pasatzea –talde handiagoan parte hartzea–. Zehazki, eztabaidatuko da horiek diren emakume eta gizon izateko era

bakarrak, sexualitate bakarra eta praktika erotiko bakarra, ezagutzen dituztenak edo, oster, bat baino gehiago dagoela uste duten. Asmoa da erakutsi eta islatzea askotan ezin ditugula pluraltasunak irudikatu ereduak duen indarrarengatik, nahiz eta horrek ez erantzun askotan bizikide dugun errealtate sozialari.

Materialak:

Saio honetan erabili beharreko materialak I. eranskinean jasotakoak dira.

Denbora:

Saio hau egiteko denbora 50 minutu da.

3. KONTZEPTU SEXOLOGIKOAK 3. Zer da sexuazio-prozesuaren kontu hori? Nire adreiluzko horma.

Hirugarren saio honetan, kontzeptu sexologikoen gainean lan egiten jarraituko dugu, **“Nire adreiluzko horma”** dinamikaren bidez. Hain zuzen, sexuazio-prozesuaren eta intersexualitatearen kontzeptuei helduko zaie. Dinamikak bost fase ditu.

Lehenbizikoan, ikasle bakoitzari folio bat emango zaio, taula bat duena. Gainera, bakoitzak bolaluma edo arkatx bat eduki beharko du. Dinamika honetan datza. Ikasleei taula bat emango zaie, bi zutabe dituen (2. eranskineko bigarren taula). Aurrenekoan, ikasleak X bat jarri beharko du baieztatzeko esaldietan (bi aukera dituzte, bata berdea eta bestea horia), eskuarki beren bizitzan egiten dutenean. Eta bigarren zutabean, erabakitzen dutenean oinarrituta (berdea edo horia), baieztatzeko esaldi horren intentsitatea adierazi beharko dute, 1etik 5era. 5 jarrita oso ados dagoela adieraziko da eta 1 jarrita batere ados ez. Hau da, lehenbiziko baieztatzeko esaldiari dagokionez “oso horia” direla uste badute, 1. esaldian 5 zenbakia jarriko dute.

Bigarrenengoan, taula osatu ondoren, dinamizatzailerak galdetuko die, beren ustez, zergatik egin den ariketa hau, ikasleek zer pentsatzen duten ikusteko, eta horren ondoren, **adreiluzko hormaren metafora** kontatuko die, unitate didaktiko honetako eduki kontzeptualen ataleko 9. orrialdean jasota dagoena.

Hirugarrenengoan, adreiluzko hormaren metafora landu eta gero, azaldu daiteke, nabarmenduta, sexuazio-prozesua bizi-prozesu bat dela, pertsona bakoitzak berea duela, eta bertan eredu genetikoek, hormonalek eta sozialek parte hartzen dutela. Azalpen hori laguntzeko, eduki kontzeptualen atalean, 8. orrialdean eta hurrengoetan, jasota dagoen informazioa ere erabili daiteke.

Dinamikaren laugarren fasean, eta sexuazio-prozesuari buruzko azalpenaren ondotik, adreiluzko horma bat duen folio bat (3. ERANSKINA) banatuko zaio ikasle bakoitzari, horiz eta berdez zeuden erantzunak urdinez eta arrosaz daudenekin ordeztzeko, eta, hartara, beren dibertsitatea lantzeko. Intentsitatean zenbakiak erabiliko dituzte arrosen, urdinen eta moreen tonu jakinak aukeratzeko. Gainera, adieraziko da kolore horiek ez direla erabili dinamikaren hasieran inor ez baldintzatzen; izan ere, arrosak eta urdinak, gizartean, konnotazio handiak dituzte, eta horregatik horia eta berdea erabili dira, alde horretatik, neutroagoak baitira. Gainera, ikusaraziko diegu nola sexuatzeko ditugun koloreak, kolore hutsak izan arren.

Eta dinamika honetako bosgarren eta azken fasean, pertsona bakoitzaren horma amaitu eta gero, denak ikasgelako ohelean edo antzekoan itsatsiko dira, denok ikus ditzagun eta gelan dagoen dibertsitateaz hitz egiteko aukera izan dezagun. Gainera, gomendatzen da horma

horiek ikasgelan egotea ikusgai (korridoreetan edo dinamikan parte hartu duten ikasleak dabilzanetan jartzea saihestu, litekeena baita ez ulertzea) unitate didaktikoa amaitu arte, beti gogoan edukitzeko dibertsitate hori.

Alde horretatik, interesgarria da irakasleek ere baloratzea egon litekeen esposizio maila, ikastetxean dauden ikasleak edo diskriminazioak edo eskola-jazarpena ekarri duten egoerak kontuan hartuta. Edonola ere, biktimizazio bikoitza ekidingo da.

Materialak:

2. eranskinean dagoen taula, ikasle bakoitzarentzat inprimatuta, eta bolaluma edo arkatza, bakarka betetzeko aukera izan dezaten.

Urdin, arrosa eta more koloreetako margoak, tonu eta intentsitate desberdinetakoak, eta zinta itsaskorra, txintxetak edo adreiluzko hormak oholean, paretan edo antzeko toki batean itsasteko balio duen beste edozein material.

Denbora:

Saio hau egiteko denbora 50 minutu da.

4. SEXU-IDENTITATEA 1. *Nire sexu-identitateak identifikatzen nau?*

Aurreko saioetan bezala, hasi aurretik, galdetuko zaie ikasleei zer duten gogoan aurreko saiotik eta inolako zalantzarik gelditu den, argitzeko edo hartaz eztabaidatzeko. Oraingo honetan, saioaren faseak hiru izango dira.

Aurrenekoan, **sexu-identitatea** zer den azalduko da, galdera honi erantzuten saiatzeko: *nor naiz ni?* Horretarako, izenburu hau duen dinamika gauzatuko da: **“Pertsonen sexatzaileak”**. Baina arreta gunea genitaletan jarri beharrean, adibidez, oilaskoak sexatzen lan egiten duten pertsonak bezala, 4. ERANSKINEAN bilduta dauden zenbait iruditan ageri diren pertsonen aurpegian eta gorputzean jarriko dugu arreta (azken bi irudiak trans neska eta mutil baten irudiak dira, ariketa amaitzean esan nahi bada). Horrekin **alosexazio** kontzeptua, ikusten duzun pertsonari izendatzen diozun sexua, hau da, *nola irakurtzen duzun*, gizon edo emakume moduan, eta **eragile alosexanteen** kontzeptua jorratu nahi dira, hau da, parean dugun pertsona sexu batekoa edo bestekoa dela pentsarazten diguten ezaugarriak (genitalak, ahotsaren tinbrea, biloa eta abar).

Haurtxoen bi argazki proiektatuko dira (4. eranskina) eta ikasleei galdetuko zaie:

- *Zer ikusten duzue argazkietan, mutikoak ala neskatoak? Zergatik?*
- *Zein ezaugarriak pentsarazten dizuete mutikoak edo neskatoak direla?*

Zaila denez haurtxoak sexatzea, gero gizon eta emakume heldu batzuen argazkiak erakutsiko dira eta galdera berberak egingo dira:

- *Zer ikusten duzue argazkietan, emakumeak edo gizonak? Zergatik?*
- *Zein ezaugarriak pentsarazten dizuete emakumeak edo gizonak direla?*

Hartara, **alosexazio-prozesua** zein den eta hartan parte hartzen duten **eragile alosexanteak** jasoko dugu. Hori guztia landuta, batez ere, hiru gauza hauen gainean hausnartu nahi dugu. Alde batetik, pertsonok oharkabea sexatzen dugula, eragile horientatik. Bestetik, eragile horiek zurrunagoak bihurtzen doazela, adinak aurrera egiten duen neurrian –izan ere, neskato eta mutiko haurtxoak oso antzekoak badira ere gorputzez, hazten goazen heinean gero eta gehiago desberdintzen goaz (aldaketak gorputzean)–, sozializazio prozesua bera bezala, hazten

goazen neurrian zorrotzagoak eta konplexuagoak diren ereduak barneratzen joatea egiten duena –umeak malguagoak izaten dira baita alde horretatik ere–. Eta beste aldetik, eragile horiek aldatu egiten direla, garai historikoaren, kulturaren eta abarren arabera. Horren adibide gisa Frantziako Luis XIV.a erregea aipa daiteke, Eguzki Erregea esaten ziotena. Ilea luze edukitzen zuen, zapata takoidunak eta galtza motzak erabiltzen zituen, bonbatxoak, eta ezaugarri horiek gizarte hartan maskulinitzat jotzen ziren. Egun, ordea, femeninoak dira. Alde horretatik, interesgarria da haien eraikuntza soziala nabarmentzea, hargatik baitira aldakorrak eta dinamikoak.

Bigarrenengoan, diapositiba baten bidez (5. ERANSKINA), identitatea zein elementuk eratzen duten azaltzen da. Diapositiba honetan elementu guztiak aurkeztu eta lantzen badira ere, alosexazio propioei dagokienak bere saioa du. Beraz, ez da gehiegi sakonduko, bere tokia izango baitu geroago, hartara, gainerako kontzeptuetarako denbora gehiago utzita.

Behin hori eginda, hau galdetuko zaie ikasleei:

- *Erraza izango al litzateke zuentzat nor zareten jakitea, gainerakoek, ispiluak, harremanak dituzuen pertsonak eta abarrek etengabe kontrakoa esango balizute eta txikitatik, gainera?*

Erantzunak osoko taldean aipatuko dira, eta ideia hau nabarmenduko da: pertsona guztiok, txikiak garenetik, badakigu barnean gure sexu-identitatea zein den. Horretarako, **"De Berta a Teo"** dokumentalaren zati bat emango da, Teok kontatzen duena berari zer gertatzen zitzaion txikitan (14. minututik 17,19.era).

Materialak:

4. eranskinean eta 5. eranskinean jasotakoak, eta bai "De Berta a Teo" dokumentala ere.

Denbora:

Saio hau egiteko denbora 50 minutu da.

5. SEXU-IDENTITATEA 2. Nor dago ispiluan?

Bosgarren saio hau hasteko, berriro helduko diogu galdera honi: *Erraza izango al litzateke zuentzat nor zareten jakitea, gainerakoek, ispiluak, harremanak dituzuen pertsonak eta abarrek etengabe kontrakoa esango balizute eta txikitatik, gainera?*

Dinamika honetan, agian, ispiluak "traizio" egiten ez dienei eta sentitzen dutena itzultzen dienei zaila egingo zaie ulertzea eragileen eta alosexazioen garrantzia, baina horretara hurbiltzeko, proposamen hau planteatzen dugu.

Lehen jarduera. **"De Berta a Teo"** dokumentalaren beste zati bat ikusiko da (7,45. minututik 9,51.era), protagonistak egiten duen galdera honi dagokiona: *"Eta orain, nor naiz ni?"*. Zati horretaz ez da ezer esango eta zuzenean bigarren jarduerara igaroko gara.

Bigarren jarduera. **Ispiluaren dinamika.** Bikoteka, neska batek eta mutil batek eratuta, ispilu baten aurrean kokatuko dira, bata bestearen atzean. Ikasgelan binarioak ez diren pertsonak badaude, era berean egingo dugu, pertsona binario batek eta ez binario batek eratutako bikoteen arabera. Pertsonetako bat ispiluan bere buruari begiratzen hasiko da (demagun neska bat dela edo pertsona binario bat), baina ez da izango hitz egiten duena, atzekoak hitz egingo baitu (mutila edo binarioa ez den pertsona), bere gorputza ispiluari begira dagoen pertsonarena delako itxurak egiten. Atzean dagoen pertsonak ahalik eta gehiena mimetizatzen

saiatu behar du aurrean dagoenarekin, hartara, azken horrek nagusiki ikusten duena ispiluaren aurrean dagoena izateko eta ez bere burua. Garrantzitsua da segundo batzuk hartzea rolean sartzeko, beren aurpegia eta gorputza aztertze eskatzea eta orrialde fotokopiatu batean pasatzen zaizkien galderei erantzutea, ispiluaren aurrean erabiltzeko (6. ERANSKINA):

- *Nor naiz?*
- *Zer ikusten dut ispiluan?*
- *Ispiluan hau ikusten badut, egiatan sentitzen dudan hori eta neure buruari naizela esaten diodan hori naiz?*
- *Zer beharko nuke niregan benetan naizena ikusteko? (adibidez, bibotea, ileak izatea aurpegian edo ez, bularrak izatea edo ez...).*

Behin amaitzen denean ispiluaren aurreko jarduera, galdera hauek egingo zaizkie ikasleei:

- *Nolakoa izan da zuentzat ariketa hau?*
- *Zein ondorio atera ahal izan duzue?*
- *Moduren bat bururatzen zaizue aurrean nor dugun jakin ahal izateko?*

Kasu honetan, eta ikasleek ez badute aipatzen, interesgarria litzateke pertsonen galdetzeko aukera dagoela nabarmentzea: *“Inork galdetu al dizu?”*. Eduki teorikoen atalean, 13. eta 14. orrialdeetan, jasotako informazioari jarraituta, azaldu zer den transexualitatea: zakila duten emakumeak eta bulba duten gizonak. Saioa bukatzeko, galdera hau egingo da: *Gainerako pertsonen ez badute ikusten ni naizena, nik neuk ez badut ikusten ispiluaren aurrean jartzen naizenean eta ni kategorizatze elementu sozialek ere ez badidate esaten ni naizena, zuen ustez, erraza da nork bere burua berrestea?* Jaso zati honetan, adibide gisa, aurretik adierazitako guztia eragatik, Teo lesbianaren kategorian eroso sentitu zen unea.

Ikasleen parte-hartzea handiagoa edo txikiagoa den kontuan hartuta, astia izanez gero, bideo hori ikustea proposatzen da, interes berezikoa baita. Nolanahi ere, garrantzitsutzat jotzen da saioa dinamizatu behar duen pertsonak ikustea (ikasleei jarri edo ez), sexuazio-prozesua errazago ulertzen lagunduko baitio eta, horrenbestez, hobeki eta sakonago azaltzeko aukera izango baitu. Bideo hori frustrazioaz hitz egiteko ere oso interesgarria da, nahi duzun moduan ez tratatzeaz. Gorabehera hori nagusia da eta aurreko dinamikan ere esperimentatzen da.

<https://www.youtube.com/watch?v=zLKWwLKAQVO>

Materialak:

6. eranskineko materialak, “De Berta a Teo” dokumentala eta ispilua bikote bakoitzarentzat. Gorputz osokoa bada hobeto, eta, gainerakoan, eskuko bat, A5 tamainakoa, gorputzean mugitzeko aukera emango diena. Bestela, gimnasioko ispiluak erabil daitezke, jarduera egiteko.

Denbora:

Saio hau egiteko denbora 50 minutu da.

6. TRANSEXUALITATEA 1. “Ibiltzeko bideak...”.

Transexualitatearen berariazko lehen saioan, egin daitezkeen igarotze desberdinak landuko dira. Helburu horrekin, bi jarduera egingo dira.

Lehenbizikoan, sei talde egingo dira (ikasgelan ikasle gehiago badaude, hiruko multiploak erabili ahal izango dira, bai taldeak eratze, bai eta laneko argazkiak gehitze ere) eta hiru

argazki banatuko dira (argazki bakoitza bi taldetan egongo da), **Mar C Llopen “Construcciones identitarias”** liburukoak: Sofía (145. or.), Leo (153. or.) eta Martina (115. or.). Taldeetako kideei esango zaie pertsona horren bizitzaren istorio bat asmatu behar dutela: haurtzarora, nerabezarora, familia, bikotekidea, halakorik badute, ikasketak, lana eta abar. Laguntzeko, irakasleek galdera hauek egin ditzakete:

- *Non jaio zen?*
- *Nolakoa izan zen bere haurtzarora?*
- *Nolakoa zen bere familia? Eta nolakoa da oraingoa, aldatu da ala berdin jarraitzen du?*
- *Zer ikasi du?*
- *Zertan egiten du lan? Zenbat lan eduki ditu?*
- *Badu bikotekiderik? Bat baino gehiago izan du, zenbat?*
- *Zein gauza ditu gustuko eta zein ez?*
- *Zein dira bere zaletasunak?*
- *Beti pertsona bera izan da ala aldatu da?...*

Istoria idazten ari diren neurrian, tarteka eta irakasleak emandako txalo batek markatuta, argazkietako pertsonen bizitzari buruzko informazio askotarikoa duten paperak emango zaizkie ikasleei, eta informazio hori beren istorioan sartu behar dute (paper horiek 7. ERANSKINEAN daude jasota).

Bigarrenean, behin dinamika amaituta, talde bakoitzak ozen irakurriko du, ikaskide guztientzat, bere pertsonaiaren istorioa. Ariketa honen bidez agerian utzi nahi da pertsona berari bururatu dakioken istorio mordoa. Hau da, bizitzek egin ditzaketen bide desberdinak, den-denak zilegiak diren bideak. Bide desberdinen ideia hau igarotzeen metafora paralelo moduan erabiliko da, igarotze horiek desberdinak diren aldetik, bakoitzak, bere aukeretan oinarrituta, nola ibili “aukeratzen duela”, nola eraiki bere bizi-bidea.

Materialak:

Mar C Llopen “Construcciones identitarias” liburuko argazkiak, taldeka lan egiteko. Eta 7. eranskineko materialak.

Denbora:

Saio hau egiteko denbora 50 minutu da.

7. TRANSEXUALITATEA 2. “Igarotzeak”.

Behin ikusita pertsonen bizitza bide askotatik *igaro* daitekeela, orain asmoa da benetako pertsonak egin dituzten ibilbideak ikustea. Horretarako, **Mar C Llopen “Construcciones identitarias”** liburuan kontatzen diren zenbait istorio benetako hautatu dira, bidea egiteko modu desberdinak ikusi eta denek ez dutela bide bera egiten ulertzeko. Izan ere, ez dago finkatuta dagoen ibilbide bat, baizik eta bakoitzak, bere aukeren neurrian, hobekien sentiarazten duena edo behar duena egiten du.

Saio honek hiru fase ditu.

Aurrenekoan, trans pertsonen benetako hiru istorio hautatuko dira, honetarako gomendatutakoak: alde batetik, taldeek sortu dituzten istorioekin alderatzeko; eta bestetik, egon daitezkeen igarotze desberdin eta askotarikoak ikusteko. Haietako bakoitzean nabarmendu beharreko ideiak ere biltzen dira:

- Martina (114.-115. or.). Edurne Zuriren metaforari jarraituta, ispilua eta sagarra, batez ere bi ideia jorratzen ditu: ispiluaren aurrean begiradak itzultzen dizunaren zailtasuna eta irudi hori ezkutatzeko beharra, eta batasunaren eta beste pertsona batzuen laguntzaren garrantzia.
- Sofia (144.-145. or.). Hormonatu gabe igarotzeaz hitz egiten du, beltzaren eta zuriaren artean dauden gris guztiez eta imajinarioak malgutzeaz.
- Leo (152.-153. or.). Identitate-prozesu desberdin, askotariko eta dinamiko hauetan egoten diren zalantzen ideia lantzen du, hormonak hartzearen edo ez egitearen alternatibaren bidez, baita bera Leo izatearen premisaren pean ere.

Bigarrengoan, egin daitezkeen igarotze desberdinak biltzen dira. Hauek gomendatzen dira, interesekoak baitira beren dibertsitatean, baina liburu osoa oso interesgarria da:

- Binderra (50. eta 51. or.). Batez ere trans mutilek erabiltzen duten jantzia, bularra murrizteko.
- Hormonak hartzea:
 - Hormonak hartzea: hormonak hartzeko modu desberdinak, txaplatak eta injekzioak (54.-55. eta 56.-57. or.).
 - Hormonak ez hartzea (102.-103. or.): Teok kontaktzen du nola maskulinizatzen den hormonak hartu gabe eta nola ez duen ordezkatu nahi maskulinitasun hegemoniko bat, baizik eta berea aurkitu eta korporalizatu.
- Aldaketa fisikoak (224. orrialdetik aurrera). Hemendik aurrera, zenbait argazkitan, zenbait pertsonak izan dituzten aldaketa fisikoak ikus daitezke, aldaketa estetikoak, hormona bidezko tratamenduak edo kirurgia-ebakuntzak egin dituztelako.
- Amaitzeko, gogoeta igarotze desberdin eta askotarikoen gainean (75. or.).
- Nabarmendu beharreko beste alderdi batzuk, familiaren babesa (170.-171. eta 208.-209. or.). Mar C Lloren liburu honetan, lantzeko beste arlo batzuk ere agertzen dira, interes berezikoak igarotzeko prozesuetan. Haien artean nabarmentzen da familiaren babesa. Egia bada ere hori 9. saioan lantzen dela, sarrera gisa erabili nahi duten edo alderdi honetan sakondu nahi duten irakasleek material hauek erabil ditzakete.

Eta hirugarren fasea, ondorio moduan, igarotze-dibertsitatea nabarmentzeko.

- *Zuen ustez, zergatik egiten dute igarotzea modu desberdinean pertsona horiek?*
- *Zuen iritziz, zer esan nahi diote munduari?*

Galdera horiek egitearen xedea da gogoeta eragitea jendeak igarotzea egiteko duen modu desberdinaren gainean eta azaltzea nola trans pertsonak eragileak erabiltzen dituzten DIREN moduan irakurriak izateko, bakoitza bere erara. Horrez gain, nabarmendu daiteke eragile horiek ez balira sozialki hain zorrotzak, igarotzeak ere errazagoak izango liratekeela, kostu txikiagoak eta, ziur asko, "lasaiagoak".

Materialak:

Mar C Lloren *"Construcciones identitarias"* liburuko argazkiak.

Denbora:

Saio hau egiteko denbora 50 minutu da.

8. TRANSEXUALITATEA 3. "Maskulinoak femeninoaren aurrean duen boterea".

Saio honetan, maskulinoak (balio handiagoa, zentralitatea, agintea, arreta...) femeninoaren aldean (balio gutxitzea, marjinalitatea, aginte-eza, arreta txikiagoa...) duen boterea jorratuko da. Horretarako, hiru jarduera gauzatuko dira.

Aurrenekoan, **“Gure idoloen dinamika”** egingo da. Bertan, proposatuko zaie ikasleei pentsatzeko miresten edo izugarri maite duten pertsona horretan, eta gaineratuko zaie ez dutela haren izena esan behar. Tarte bat utziko da denek pertsona bat aurkitu eta irudikatzeko. Jarraian, galdera hau egingo zaie:

- **“Zergatik maite duzu izugarri edo miresten duzu?”.**

Pertsona horrengan zein ezaugarri miresten duten pentsatu eta gero, ezaugarri horietatik bat edo bi idatzi beharko dituzte *post it* batean (*post it* bat ezaugarri bakoitzeko). Denek beren *post it*-ak idatzi dituztenean, arbelean bi zutabe egingo dira: maskulinoa eta femeninoa. Ondoren, ikasleei eskatuko zaie banan-banan altxatzen joateko, ezaugarria esateko eta, tipikoki maskulinoa edo tipikoki femeninoa iruditzen zaion kontuan hartuta, sailkatzeko. Adibidez, pertsona hori miresten badute ausarta delako, ausardia tipikoki maskulinoari lotzen zaion ezaugarria da (nahiz eta hori eztabaidatu ahal den eta ezin konta ahala emakume ausart egon), eta, hortaz, maskulinoaren zutabea idatziko da. Pertsona bakoitzak ezaugarria zutabeetako batean idatzi ondoren, arbela nola gelditu den ikusiko dugu. Nagusiki, bi gauza hauekin lotuta: a) zein ezaugarri dira sozialki baliotsuagoak, femeninoak ala maskulinoak? b) non dago *post it* gehiago, femeninoaren zutabea ala maskulinoaren zutabea? Litekeena da *post it* gehiago egotea maskulinoaren zutabea. Amaitu aurretik, *post it*-a jartzea atera den orori eskatuko zaio esateko miresten duten pertsona hori emakumea edo gizona den. Agian errepikatu egingo da gizonak emakumeak baino gehiago mirestea, nahiz eta oso litekeena den ez gertatzea ezaugarriekin gertatzen zen desberdintasunarekin eta parekatuta egotea, edo areago, emakumeak gehiago mirestea. Bi kasuetan, helburua da ikusgai egitea ezaugarri maskulinoak miretsi eta gehiago balioesteko joera dugula, ezaugarri femeninoen aurrean (zainketak, lankidetzak eta abar); eta, gainera, nahiz eta batzuetan emakumeak aukeratu gure idolo izateko, haiengan ez dugula femeninoa baloratzen, ezaugarri hori duen pertsona emakumea edo gizona izan gorabehera.

Bigarrengoan, **“De Berta a Teo”** dokumentala emango da (19,19. minututik 20,17.era). Zehazki, zati horretan, protagonistak kontatzen du nola tratatzen duten desberdin irakurtzen duten moduaren arabera. “Emakumearen” egiturazko posizioa da okerrekin tratatzen dutena, eta hau ekartzen du: *maskulinoaren tirania*. Fase honetan, gogoeta egingo da nola estrukturalki balio handiagoa duen maskulinoak eta uste den femeninoak baino goragoko posizioa duen.

Zortzigarren saio honetako hirugarren fasean, aurreko gogoetaren ondoren, saioa amaitu nahi da femeninoaren *garrantzia nabarmentzen, feminitatea*. Horretarako, femeninoaren zutabea jarri diren *post it*-ak hartuko dira eta haien gainean hitz egingo da. Ikasleei eskatuko zaie, talde txikietan antolatuta (lau eta sei lagun artekoak), gehiago pentsatzeko mirestekoa diren ezaugarri femeninoetan, nahiz eta eskuarki ez egin. Saioa amaitzeko, osoko taldean, ezaugarri horiek azalduko dira.

Materialak:

“De Berta a Teo” dokumentala eta *post it*-ak, idoloen ezaugarriak idazteko.

Denbora:

Saio hau egiteko denbora 50 minutu da.

9. TRANSEXUALITATEA 4. Igarotzeetan lagun egiten.

Transexualitateari buruzko azken berariazko saioan, zenbait gizarte-eragilek duten garrantziari heltzen saiatuko gara, besteak beste, familiak, lagunak edo, edukiz gero, bikotekideak, igarotze-prozesuetan lagun egitean, ulertzean eta babestean. Horretarako, hiru jarduera gauzatuko dira.

Lehenbizikoaren izenburua hau izango da: ***“Transexualitate-prozesuetan ohikoenak izaten diren zailtasunen gaineko eztabaida”***. Eztabaida hori egiteko, zazpi talde egingo dira, eta honen gainean ariko dira:

- *Zure ustez, zein zailtasun izan ditzake zakila duen neska batek edo bulba duen mutiko batek bere familiarekin/eskolarekin/lagunekin/bikotekidearekin (edukiz gero)/lanarekin/kirolarekin/aisiarekin?*

Talde bakoitzari kartoi mehe bat banatuko zaio, eta bertan zazpi arlo hauetako bat egongo da idatzita: familia, eskola, lagunak, bikotekidea (edukiz gero), lana, kirola eta aisia. Kartoi mehe horretan, taldeak idatziko ditu, bere ustez, trans pertsonak arlo horretan dituzten zailtasunak. Gure iritiz garrantzitsuak diren gauzak badaude eta ez bazaizkie bururatzen ikasleei, aipatzea daukagu. Jarraian jasotzen diren alderdiak trans pertsonen prozesuetan zailtasun gisa adierazten dira:

- Nahi duen pertsona moduan izendatua izatea.
- Ez erantzun behar izatea galdera intimoei, konfiantzarik ez dagoen pertsonari: “zein izen zenuen lehen, zein genital dituzu...?”. Jakin-mina badugu, pertsonari modu intimoa, bakarka, galde diezaiokegu, ez taldean.
- Aldagelen kudeaketa.

Jarduera honetan, ikasleak ez badira asko parte hartzekoak edo haiekin egiten den lana gidariagoa izan, saio honi dagokion teoria kontsultatu daiteke eduki kontzeptualen 15. orrialdetik aurrera.

Behin arlo hori bete dutenean (adibidez, kirolarena), kartoi mehea beste talde bati emango diote, arlo guztiak bete arte. Azken kartoi mehea dutenean (bete behar duten azken arloa), harekin geldituko dira eta taldean pentsatu beharko dute **talde desberdinek eta beraiek jaso dituzten zailtasunei nola egin aurre**, eta nola lagundu pertsona horiei arlo horretan. Gogoan izan beharko dute zerk egin diezaiekeen kalte eta nola ez egin. Bukatzeko, proposamenak batera jarriko dira eta, baten batek beste bat badu, ozenki adieraziko du.

Bigarren jardueran, transexualitate-prozesuetan familiak eta gizarteak lagun egiteak dituen indarguneak jarriko dira agerian. “De Berta a Teo” dokumentalaren zati bat ikusiko da: protagonistak gogora ekarriko du amak lehenbiziko aldiz aipatu zuenean (33,34. minututik 34,10.era) edo beretzat zer izan den babes-talde bat izatea, “*PandiTrans*” esaten diona (17,44. minututik 19,11.era). Nabarmendu behar da zein garrantzitsua den izendatua izatea eta bai bakoitzaren prozesuan lagun egitea eta babestea ere. Ondorioztatuko da, Teoren kasuan, beldurrak beldur, babes handia duela familiaren eta gizartearen aldetik, bideoan ikusten den moduan, eta hori giltzarria dela bere prozesuan. Bere bideoan edo dokumentalean agertu nahi izatea, bere horretan, babes-erakuskari bat da.

Eta hirugarren jarduera transexualitate-prozesuetan babes eta lagun-egite behar hori azpimarratzean datza. Horretarako, beste film labur hau ikusiko da:

https://elpais.com/politica/2018/07/12/actualidad/1531405398_213625.html

Bi bideoak ikusi eta gero, galdera hau egingo da familiaren, lagunaren, bikotekidearen (edukiz gero), lankideen, kirol taldeko kideen eta abarren babesa beharrezkoa dela azpimarratzeko helburuarekin PERTSONA GUZTIENTZAT gure bizi-prozesu osoan, hartara, garenak izateko bidea ematen joateko.

- *Arlo horietan babesa izatea garrantzitsua da trans neska eta mutiko edo gizon eta emakumeentzat? Eta halakoak ez diren pertsonentzat garrantzitsua da?*

Materialak:

“De Berta a Teo” dokumentala eta bideoa ikusteko lotura. Gainera, kartoi meheak, sei taldeentzat.

Denbora:

Saio hau egiteko denbora 50 minutu da.

10. DIBERTSITATE SEXUALA. “Pertsona desberdin eta askotarikoak, imajinario zabalagoak”.

Azken saioa hiru zatitan egituratuta dago.

Lehenbiziko zatian, hain zuzen, aurrekoetan ikasitako guztia berrikusiko da eta ondorio hau aterako da: **transexualitatea dibertsitate sexualaren beste egitate bat da**. Horretarako, Mikele Granderen bideo bat emango da, TEDx-en:

<https://www.youtube.com/watch?v=N90A1h3EcKU>

Bigarrenengoan, behin bideoa ikusita, transexualitatea denaren gaineko azken gogoetak erabiliko dira, eduki kontzeptualen ataleko 20. orrialdean jasota daudenak:

- Transexualitateak errazten du ulertzea gure gizon eta emakume egitean bakoitzak bere bidea duela. Gauzek nolakoak izan behar duten adierazten duten ereduaren oinarritutako ikuspegia amaitu, eta errealtateari begiratzeko eta hura hautemateko era berriak sartu behar dira.
- Modu berriak, non, irudipenak gorabehera, ez den *behartzen*, baizik eta galdetu egiten den.
- Modu berriak, non *izan behar da* ordeztu eta *izaten utzi* bultzatzen den.
- Modu berriak, non errepikatzen den *arau bakarra diferentzia* den.
- Transexualitatea, beste errealtate asko bezala, dibertsitatearen beste egitate bat da. Eta dibertsitateak aberastu egiten gaituenez, arreta eman, ulertu, errespetatu, onartu eta landu beharreko beste berezitasun bat da.

Eta hirugarren eta azken zatian, eskatuko zaie ikasleei, talde txikietan, **ipuin, komiki edo bideo bat** sortzeko. Hartan, hain zuzen, azalduko diete neska eta mutiko txikiagoei zer ikasi duten. Zein ikastetxetan gauden kontuan hartuta, ikasleek aukeratu ahal izango dute zein adinetarako egin ipuina, komikia edo bideoa eta hura erabili ahal izatea material moduan txikiek

partekatzeko (belaunaldien arteko harremanak). Adibidez, haien ikasgelara joan daitezke, ipuina edo komikia kontatzeko edo egindako bideoa erakusteko. Dinamika honetarako, paper zuri bat erabil daiteke edo, nahiago izanez gero, aldizkari edo irudi desberdinak, collage antzekoa egiteko. Sortutako materiala beste ikasle batzuentzat izatea ezin bada lortu, asmoa da ikasgelan irauteko egitea.

Materialak:

Mikele Granderen bideorako lotura eta ipuina, komikia edo bideoa egiteko materialak. Aukeratzen denaren arabera, batzuk edo besteak beharko dira. Collagerako aldizkariak edo irudiak ere beharko dira.

Denbora:

Saio hau egiteko denbora 50 minutu da.

VII. Ebaluazioa

Ebaluazioa modu jarraituan egingo da, unitate didaktikoa landu ahala. Bloke bakoitza bukatuta, honako hauen gaineko ebaluazioa egingo da: ikasgelaren antolaera, taldeak, denbora, ikasleen interesa, sartutako kontzeptu berriak ulertu ote diren, eta abar; hartara, jarduerak berregokitu egin daitezke proposatutako helburua eta xedeak lortze aldera. Irakasleak gehienbat bi teknika erabiliko ditu: behaketa eta ikasleek galdetegiei emandako erantzunen azterketa. Prozesu horretan, hona hemen kontuan hartu beharreko adierazle batzuk: ikasleen arreta eta gaitasuna ikus-entzunezkoen eta testuen analisisan, esku-hartze indibidualak, talde txikien funtzionamendua eta dinamikak eta talde handiaren esku-hartzeak eta interakzioak.

Ebaluazio-irizpideak:

- Dagoen dibertsitate sexuala identifikatzen du: berea eta gainerakoena.
- Generoko eredu soziala ulertzen du (sexuei inposatutako rolak), bere dinamikak eta ondorioak, eta desnaturalizatu egiten du.
- Dibertsitate sexualari eta transexualitateari buruzko oinarritzko kontzeptuak ezagutzen ditu.
- Sexuazio-prozesuko elementu giltzarriak bereitzen ditu.
- Igarotzeen dibertsitatea identifikatzen du.
- Igarotze-prozesuetan lagun egiteak duen garrantzia ulertzen du.
- Gauza da onartzeko edo ezezkoa adierazteko gustatzen zaion edo gustatzen ez zaion zerbaiten aurrean, hurrenez hurren.
- Nahi duena adierazten du.
- Laguntza eskatzen du, behar duenean.
- Parte-hartze aktiboa du, bai bakarka, bai lantaldeetan ere.
- Ideiak garbi adierazteko gaitasuna erakusten du.
- Hitz egiteko txandak errespetatzen ditu eta modu aktiboan entzuten du.
- Aldatu egin ditu aurretik zituen ideia batzuk.

Unitate didaktikoa bukatutakoan, oso interesgarria litzateke ikasleei eskatzea ikasitakoari buruzko ebaluazio txiki bat egiteko: zer iruditu zaien bereziki deigarria, zer gustatu zaien eta zer ez, beren burua identifikaturik ikusi ote duten zerbaitekin bereziki, beren ideiaren bat aldatu duten, zein, eta abar.

VIII. Bibliografia

- ✓ Amezúa E. (1999) *Teoría de los sexos*. Madril: Revista Española de Sexología.
- ✓ Barqui, N., Genise, G. eta Tolosa, D. O. (2018). *Manual integrador hacia la despatologización de las identidades trans*. Argentina: Akadia.
- ✓ Chang, R. (2002). *Making Comparisons Count*. New York: Routledge.
- ✓ Foucault, M. (1992). *Microfísica del poder*. Madril: La Piqueta.
- ✓ Hernando, A. (2012). *La fantasía de la individualidad. Sobre la construcción sociohistórica del sujeto moderno*. Buenos Aires: Katz Editores.
- ✓ Landarroitajuregi Garai, J. (2000): *Homos y Heteros*. Madril: Revista Española de Sexología.
- ✓ Rose, N. (1991). *Governing by numbers: figuring out democracy. Accounting Organizations and Society*. 16. liburukia (7), 673-692.
- ✓ Marañón, G. (1951) *La evolución de la sexualidad y los estados intersexuales*. Madril: Ediciones Arcos.
- ✓ Ngozi Adichie, Ch. (2018). *El peligro de la historia única*. Bartzelona: Literatura Random House.
- ✓ Platero, Lucas (2014) *Trans*exualidades: acompañamiento, factores de salud y recursos educativos*. Bartzelona: Bellaterra.

IX. Eranskinak

1. ERANSKINA

HOMBRE



MUJER



HOMBRE – GIZONA
MUJER – EMAKUMEA

hombreS



mujereS



hombreS – gizonak
mujereS -- emakumeak

PORNO



PORNO -- PORNOA

DIVERSIDAD ERÓTICA



DIVERSIDAD ERÓTICA – DIBERTSITATE EROTIKOA


2. ERANSKINA

ZK.	Ikasleentzat		1 eta 5 arteko balioa
1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			
9			
10			
11			
12			
13			
14			
15			
16			
17			
18			
19			
20			
23			
22			
23			
24			
25			
26			
27			
28			
29			
30			
31			
32			
33			
34			

ZK.	Irakasleentzat	1-5
1	Taldeko kirol batean baloia/pilota jaso duzu. Bi aukera dituzu, edo gola sartzen saiatzea edo taldekide bati pasatzea, berak egin dezan.	
2	Inoiz joan ez zaren toki batera joan behar duzu kudeaketa bat egitera. Bakarrik joango zara edo norbaitek lagunduta.	
3	Nire hatz nagia hatz erakuslea baino luzeagoa da vs nire hatz erakuslea nagia baino luzeagoa da.	
4	Ligatzeko orduan, aurrea hartzen duzu edo besteak zu seduzitu zain gelditzen zara.	
5	Mahai-joko batean, irabazten ahalegintzen zara bai edo bai edo jokoaz eta tarte horretaz gozatzen ahalegintzen zara.	
6	Familiak urtero egiten duen bileretako batean, aitona-amonak egungo gazteak kritikatzeko hasi dira. Haiekin eztabaidan hasi zara edo adeitsua zara eta ulertzen duzu beste garai batean hazitakoak direla.	
7	Egun luze baten amaieran, nahiago duzu lagunekin edo senitartekoeekin egunaz hitz egin edo telebista ikusi/aldizkari bat irakurri.	
8	Nire hankak bi aldiz gurutza ditzaket edo ezin dut.	
9	Lagun batek arazo pertsonal bat eduki du eta zuregana jo du: ulerkor jokatzeko duzu edo iradokizun/iritzi logikoak eskaintzen dizkiozu, arazoari irtenbidea emateko.	
10	Errezeta zail bat prestatzen ari zara eta irratia entzuten aldi berean. Bat-batean, baten batek telefonoz deitu du: irratia piztuta duzula, prestatzen jarraitzen duzu telefonoz hitz egiten duzun bitartean edo geroago deituko diozula esaten diozu, janaria prestatzen duzunean, edo alderantziz.	
11	Nola kentzen dut jertsea? Besoak tolesten ditut edo atzetik luzatzen dut?	
12	Dantzatu behar duzunean edo pauso batzuei jarraitu: musika sentitzen duzu eta dantzatu egiten zara edo edo pausoak erritmoarekin uztartzen kostatzen zaizu.	
13	Ostiralean, txupinazoa denean, arropa jantztean, pentsatu duzuna jantziko duzu edo pentsatuko duzu eta probak ere egingo dituzu.	
14	Gidatzen noanean, eta, beraz, aurrera begira noanean, baten batek esaten badit "ikusten duzu eskuineko mendia?", burua biratzen dut ikusteko, bestela ez baitut ikusten edo nahikoa dut begia pitin bat biratzearekin, burua mugitu gabe ikusteko.	
15	Hunkitzen nauen zerbait adierazi nahi dudanean, erraza egiten zait adierazteko hitzak aurkitzea edo hunkitzen nauen zerbait dagoenean, identifikatzen dut, baina norbaitek esaten badit "kontaidazu" kosta egiten zait azaltzea.	
16	Oinez noanean gutxi gorabehera lerro zuzen bat egiten dut edo bi lerro paralelo?	
17	Toki batera nola joan galdetzen didatenean, erreferentziatzeko tokiak erabiltzen ditut azaltzeko edo honen antzeko azalpenak ematen ditut: 4 ezkerretara, biratu biribilgunean, bigarren kale-burua...	

18	Taldeko kirol batean baloia/pilota jaso duzu. Bi aukera dituzu, edo gola sartzen saiatzea edo taldekide bati pasatzea, berak egin dezan.	
19	Inoiz joan ez zaren toki batera joan behar duzu kudeaketa bat egitera. Bakarrik joango zara edo norbaitek lagunduta.	
20	Nire hatz nagia hatz erakuslea baino luzeagoa da vs nire hatz erakuslea nagia baino luzeagoa da.	
23	Ligatzeko orduan, aurrea hartzen duzu edo besteak zu seduzitu zain gelditzen zara.	
22	Mahai-joko batean, irabazten ahalegintzen zara bai edo bai edo jokoaz eta tarte horretaz gozatzen ahalegintzen zara.	
23	Familiak urtero egiten duen bileretako batean, aitona-amonak egungo gazteak kritikatzeko hasi dira. Haiekin eztabaidan hasi zara edo adeitsua zara eta ulertzen duzu beste garai batean hazitakoak direla.	
24	Egun luze baten amaieran, nahiago duzu lagunekin edo senitartekoeekin egunaz hitz egin edo telebista ikusi/aldizkari bat irakurri.	
25	Nire hankak bi aldiz gurutza ditzaket edo ezin dut.	
26	Lagun batek arazo pertsonal bat eduki du eta zuregana jo du: ulerkor jokatzeko duzu edo iradokizun/iritzi logikoak eskaintzen dizkiozu, arazoari irtenbidea emateko.	
27	Errezeta zail bat prestatzen ari zara eta irratia entzuten aldi berean. Bat-batean, baten batek telefonoz deitu du: irratia piztuta duzula, prestatzen jarraitzen duzu telefonoz hitz egiten duzun bitartean edo geroago deituko diozula esaten diozu, janaria prestatzen duzunean, edo alderantziz.	
28	Nola kentzen dut jertsea? Besoak tolesten ditut edo atzetik luzatzen dut?	
29	Dantzatu behar duzunean edo pauso batzuei jarraitu: musika sentitzen duzu eta dantzatu egiten zara edo edo pausoak erritmoarekin uztartzen kostatzen zaizu.	
30	Ostiralean, txupinazoa denean, arropa jantztean, pentsatu duzuna jantziko duzu edo pentsatuko duzu eta probak ere egingo dituzu.	
31	Gidatzen noanean, eta, beraz, aurrera begira noanean, baten batek esaten badit “ikusten duzu eskuineko mendia?”, burua biratzen dut ikusteko, bestela ez baitut ikusten edo nahikoa dut begia pitin bat biratzearekin, burua mugitu gabe ikusteko.	
32	Hunkitzen nauen zerbait adierazi nahi dudanean, erraza egiten zait adierazteko hitzak aurkitzea edo hunkitzen nauen zerbait dagoenean, identifikatzen dut, baina norbaitek esaten badit “kontaidazu” kosta egiten zait azaltzea.	
33	Oinez noanean gutxi gorabehera lerro zuzen bat egiten dut edo bi lerro paralelo?	
34	Toki batera nola joan galdetzen didatenean, erreferentziatzeko tokiak erabiltzen ditut azaltzeko edo honen antzeko azalpenak ematen ditut: 4 ezkerretara, biratu biribilgunean, bigarren kale-burua...	

3. ERANSKINA



4. ERANSKINA



IDENTIDAD SEXUAL

egosexuación

+

autosexación

+

inductores alosexantes

+

alosexación

SEXU-IDENTITATEA

egosexuazioa

+

autosexazioa

+

eragile alosexanteak

+

alosexazioa

6. ERANSKINA

Bi ama ditu	Bi aita ditu	Errugbia gustatzen zaio	Txakurra hil zitzaion
3 aldiz dibortziatu da	Besteek oinetan ferekak egitea gustatzen zaio	25 neskarekin eta 4 mutilekin ligatu du bere bizitzan	Barrezko filmekin negar egiten du
Beti izan nahi izan du astronauta	Nahiz eta ez zen bere ametsa, artista izan da	Lehen harategi batean egiten zuen lan	Parapentea du gogoko
Aspertzen denean, masturbatu egiten da	Peluxe batekin egiten du lo	Tik bat du	Ez zaizkio gustatzen mingainarekin ematen diren musuak
Ez du inoiz ligatu	3 seme-alaba ditu	Ez du seme-alabarik izan nahi	Boleibolean ibiltzen da
Ez du aitarik	Bere amonak Margarita izena du	Mario Vaquerizoren zalea da	Begetarianoa da

7. ERANSKINA

Ikasleei emateko, ispiluaren aurrean daudenean:

- Nor naiz?
- Zer ikusten dut ispiluan?
- Ispiluan hau ikusten badut, egiatan sentitzen dudan hori eta neure buruari naizela esaten diodan hori naiz?
- Zer beharko nuke niregan benetan naizena ikusteko? (adibidez, bibotea, ileak izatea aurpegian edo ez, bularrak izatea edo ez...).